

MERKATARITZAN EUSKARAZ

ESKULIBURUA

Itziar Nogeraz

Elhuyar
K U L T U R A E L K A R T E A

MERKATARITZAN EUSKARAZ

ESKULIBURUA

Egilea: *Itziar Nogeras*

Elhuyar
K U L T U R A E L K A R T E A



CAMARA DE GIPUZKOA
Comercio Industria y Navegación
GIPUZKOAKO BAZKUNDEA
Merkataritza Industria eta Itsasketa



Gipuzkoako Foru Aldundia
Kultura eta Euskara Departamentua

Azala: M. Karmen Urdangarin
Maketa: Olatz Rico eta M. Karmen Urdangarin

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsia: 1997-03-24

© ELHUYAR K.E. Asteasuain 14. Txikiardi, 20170 USURBIL (Gipuzkoa) (1997)
Lege-gordailua: NA-845-1997
ISBN: 84-87114-18-0

Inprimatzailea: Lizarra inprimategia, SL Tafallarako bidea, 1 km LIZARRA (Nafarroa)

AURKIBIDEA

SARRERA	7
DENDAN	
Establezimendu-motak	9
Establezimenduen izen generikoa: zerrenda	
Establezimenduen izen berezia: nola jarri	
Oharrak	12
Jendearentzako oharrak: zerrenda	
Ordutegia	16
Establezimenduen ordutegien adibideak	
Orduak nola adierazi: zer ordu da?, zer ordutan?, ...	
Kantitateak, kopuruak	18
Prezinoa edo salneurria	
Pisua	
Edukiera	
Kantitatea eta kopurua	
<i>Adibideak</i>	
<i>-KADA atzizkia</i>	
<i>baso bat ur ≠ ur baso bat</i>	
Dimentsioak: <i>bi metro luze = bi metroko luzera</i>	
Abiadura	
ZENBAIT PUNTU JAKINGARRI	
Alfabetoa eta ortografia	23
H letraren erabilera	
S, Z, X eta TS, TZ, TX	
Hitz-amaierako -a	25
-a noiz berezko, noiz ez	
berezko -a noiz galtzen den	
Zenbakien idazkera	27
Kardinalak	
Ordinalak	
Partitiboak	
Portzentaiak	
Data	30
Zifrak eta letrak erabiliz	
Zifra hutsez	
Letra hutsez	
Hil eta egunen izenak eta laburdurak	
Jaiegunen izenak	
Eragiketa matematikoak	34

Helbidea	35
Kale-izendegia	
<i>Izen generikoa</i>	
<i>Izen berezia</i>	
<i>Kaleak izendatzeko ordena edo hurrenkera</i>	
<i>Oina edo pisua nola adierazi</i>	
<i>Zenbait laburdura erabilgarri</i>	

IDAZKERARI BURUZ

Idazteko gomendio orokorrak	37
Puntuazio-zeinuak	39
Koma	
Puntu eta koma	
Bi puntu	
Puntua	
Eten-puntuak	
Galdera-ikurra	
Harridura-ikurra	
Komunikazioetarako esaldiak	43
Aurrekoarekin lotzekoak	
Barkamena eskatzekoak	
Berri onak ematekoak	
Berri txarrak ematekoak	
Bidaltzea adieraztekoak	
Denbora irabaztekoak	
Doluminak ematekoak	
Eskerrak ematekoak	
Gaitzetsi, kexa adierazi eta kritika egitekoak	
Gonbita edo gonbidapena	
Hartu izana adieraztekoak	
Ohartaraztekoak	
Proposamenak egitekoak	
Zerbait eskatzekoak	
Zorionak ematekoak	
Esaldi horiek direla eta	

GUTUNAK

Gutunaren egitura	57
Egituraren irudia eta adibidea	
Goiburukoa	
<i>Idazpurua</i>	
<i>Helbidea</i>	
<i>Gaia</i>	
<i>Data</i>	
<i>Hasierako agurrak</i>	

Gorputza	
<i>Tarteko esapideak</i>	
Oina	
<i>Bukaerako agurrak eta sinadura</i>	
Merkataritza-gutunak	62
Informazioa eskatzekoa	
Informazioa bidaltzekoa	
Aurrekontua eskatzekoa	
Eskaera egitekoa	
Materiala bidaltzekoa	
Jaso ez den materiala erreklamatzekoa	
Materiala hartu izana adieraztekoa	
Faktura bidaltzekoa	
Faktura itzultzekoa	
Ordainketa atzeratu izanagatik erreklamazioa egitekoa	
Bankuak letra itzuli duela jakinaraztekoa	
Letra itzuli izanagatik barkamena eskatzekoa	

INPRIMAKIAK

Eskaera-agiria	75
Emate-agiria edo albarana	76
Faktura	77
Ordainagiria edo errezihoa	78
Txekea	79
Helbide-txartela	80
Zozketa-txartela	81

HIZKUNTZ PUNTUAK

Aditza	83
Aditz laguntzailearen taulak	
Zer da 'aditz laguntzailea'?	
<i>Aditz trinkoa eta aditz perifrastikoa</i>	
<i>Aditzaren aspektua</i>	
Aditz laguntzailearen taulak nola erabili	
Aditzari buruz	
<i>Gonbidatu, itxoin, deitu, lagundu,...</i> “dizut” ala “zaitut”?	
<i>“Arazi” aditzaren idazkera eta erabilera</i>	
<i>“Balio du” ala “balio ditu”?</i>	
<i>Egitura pasiboak</i>	
<i>Esaldi inpersonalak</i>	
Deklinabidea	89
Deklinabidearen taulak	
Deklinabideari buruz	
<i>Ez ahaztu honako kasu hauetan mugagabea erabili behar duzula</i>	

<i>Mugagabea eta aditza</i>	
<i>Ez ahaztu honako kasu hauetan mugatua erabili behar duzula</i>	
Erakusleen deklinabidea	
Bat/batzuk deklinabidea	
Hiru eta lauren deklinabidea	
Atzizkiak	94
Eratorpena	
Zenbait atzizkiren esanahia eta erabilera	
Hitz-elkarketa	96
Hitz-elkarteen motak eta grafia	
Maileguzko hitz berriak	97
Maileguzko hitz berrien idazkera-arauak	
<i>Hitz hasierako erdal r</i>	
<i>Bi kontsonanteko multzo zenbait</i>	
<i>Hitz-bukaerak: -o ala -u</i>	
<i>Hitz-bukaerak: -e ala -o</i>	
<i>Xdunak</i>	
<i>G edo Jdunak</i>	
<i>Oinarrizko arau batzuk</i>	
 ERASKINA:	
Euskal Herriko herrien zerrenda: erdal izena eta euskal izena.....	101
Laburtzapenak: sigla, ikurra eta laburdura.....	117
 HIZTEGIA	119
Euskara-gaztelania	
Gaztelania-euskara	
 BIBLIOGRAFIA	167

SARRERA

Esku artean duzun liburu hau lan-arloan euskara zabaldu eta normalizatzen laguntzeko jaio da.

Gero eta gehiago zarete zuen lanean, zuen saltoki eta establezimenduetan, euskara normaltasunez erabiltzeko prest agertzen ari zareten merkatariak.

Eta zuen artean sortzen ari den beharrari erantzuteko egin dugu, bada, eskuliburu hau.

MERKATARITZAN EUSKARAZek iharduera horretako oinarritzko dokumentuak, horiek erabiltzeko hizkuntz argibideak eta eremu horretako oinarritzko terminologia bildu ditu.

Guztia ahalik eta era errazenean azaltzen saiatu gara, lan-tresna erabilgarri bat izan dezazuen.

... ESTABLEZIMENDU-MOTAK ...



ESTABLEZIMENDUAREN IZEN GENERIKOA

- **Izen generikoak** zein establezimendu-mota den adierazten du; eta hori adierazteko **errotuluetan**, **poltsetan** eta antzekoetan jartzen dugunean, deklinabidearen forma mugatua (hau da, 'a' amaiera) erabiltzen da:

Adibidez:

auto-tailerra
aroztegia
harategia



- Izen generikoen **zerrenda** gaztelaniaz eta euskaraz:

abastecimiento industrial: *industri hornidura*
 abastecimiento: *hornidura*
 academia: *akademia*
 agencia de viajes: *bidai agentzia/bilegoa*
 aislamientos eléctricos: *isolamendu elektrikoak*
 albañilería: *igeltserotza*

almacén: *biltegia*
 alquiler de automóviles: *ibilgailuen alokatzea*
 antenas: *antanak*
 aparejador/a: *aparejadorea*
 ascensores: *igogailuak*
 asesoria: *aholkularitza*
 autocares: *autobusak*

autoescuela: <i>autoeskola</i>	grúas: <i>garabiak</i>
banco: <i>banketxea</i>	herboristería: <i>belar-denda</i>
barnizados: <i>bernizadurak</i>	hipermercado: <i>hipermerkatua</i>
bar: <i>taberna</i>	hostal: <i>ostatua</i>
bodega: <i>ardandegia</i>	hotel: <i>hotela</i>
cafés: <i>kafe-denda</i>	iluminación: <i>argiztapena</i>
cafetería: <i>kafetegia</i>	imprensa: <i>inprimategia</i>
carnicería: <i>harategia</i>	inmobiliaria: <i>higiezinen agentzia</i>
carpintería: <i>aroztegia</i>	instituto: <i>institutua</i>
carrocería: <i>karrozeria</i>	instrumentos musicales: <i>musika-denda,</i> <i>musika-tresnak</i>
central lechera: <i>esne-zentrala</i>	investigación: <i>ikerketa</i>
centro de enseñanza: <i>ikastetxea</i>	joyería: <i>bitxi-denda, bitxitegia</i>
centro médico: <i>zentro medikoa</i>	juguetería: <i>jostailu-denda</i>
charcutería: <i>urdaitegia</i>	lavacoches: <i>auto-garbitokia</i>
climatización: <i>klimatizazioa</i>	lavandería: <i>garbitokia, ikuztegia, latsagia</i>
clínica dental: <i>hortz-klinika</i>	lencería: <i>lentzeria, mihise-denda</i>
clínica: <i>klinika</i>	librería: <i>liburu-denda</i>
concesionario: <i>kontzesionarioa</i>	manualidades: <i>eskulanak</i>
congelados: <i>izoztuak</i>	maquinaria agrícola: <i>baserri-tresnak</i>
copistería: <i>kopia-denda</i>	masajista: <i>masaje-emaile, masajista</i>
cristería: <i>kristaldegia, beirategia</i>	material de oficina: <i>bulegoko</i> <i>tresneria/tresnak/materiala</i>
discoteca, sala de fiestas: <i>dantzalekua</i>	mercería: <i>mertzzeria</i>
diseñador/a: <i>diseinugilea, diseinatzailea</i>	mueblería, tienda de muebles: <i>altzari-denda,</i> <i>altzariak</i>
distribuidora: <i>banaketa-etxea, banatzailea</i>	notaría: <i>notaritza</i>
droguería: <i>drogeria</i>	óptica: <i>optika</i>
editorial: <i>argitaletxea</i>	panadería: <i>okindegia</i>
electricidad: <i>elektrizitatea</i>	papelería: <i>paperategia, paper-denda</i>
electrodomésticos: <i>etxetresna elektrikoak</i>	pastelería: <i>gozo-denda, gozotegia</i>
embalajes: <i>enbalajeak</i>	peletería: <i>larru-denda</i>
escuela de idiomas: <i>hizkuntz eskola</i>	peluquería: <i>ileapaindegia</i>
espectáculos: <i>ikuskizunak</i>	perfumería: <i>lurrin-denda, perfume-denda,</i> <i>perfumeria</i>
estanco: <i>estankoa, tabako-denda</i>	pescadería: <i>arrandegia</i>
extintores: <i>suitzalgailuak</i>	piensos: <i>pentsuak</i>
farmacia: <i>farmazia, botika</i>	platos preparados/cocinados: <i>janari prestatuak</i>
ferretería: <i>burdindegia</i>	productos de limpieza: <i>garbigarriak</i>
floristería: <i>loradenda</i>	quincallería: <i>kinkila-denda</i>
fontanería: <i>iturgintza</i>	radio: <i>irratia</i>
fotografía, tienda de material fotográfico: <i>argazki-denda</i>	relojería: <i>erloju-denda</i>
frutería: <i>fruta-denda</i>	reparación de calzado: <i>zapata-konponketa,</i> <i>zapataria</i>
funeraria: <i>ehorzetetxea</i>	
garaje: <i>garaia</i>	
gestoría: <i>gestoria</i>	
gimnasio: <i>gimnasioa</i>	

restaurante: <i>jatetxea</i>	tapicería: <i>tapiztegia</i>
rótulación: <i>errotulazioa</i>	taxis: <i>taxiak</i>
rótulos: <i>errotuluak</i>	tejidos: <i>ehun-denda</i>
salón de belleza: <i>apaindegia</i>	tienda de comestibles: <i>janari-denda</i>
sanitarios: <i>komun-ontziak, higiene-ontziak</i>	tienda de deportes: <i>kirol-denda</i>
seguros: <i>aseguruak</i>	tienda de regalos: <i>opari-denda</i>
servicio de traducción: <i>itzulpen-zerbitzua</i>	tienda de ropa: <i>jantzi-denda, arropa-denda</i>
sidrería: <i>sagardotegia</i>	toldos: <i>toldoak</i>
sonorización: <i>soinuztapena, soinu- -instalazioak</i>	transportes: <i>garraioak</i>
supermercado: <i>supermerkatua</i>	viajes: <i>bidaiak, bidai agentzia/bulegoa</i>
taller mecánico (de coches): <i>auto-tailerra, ibilgailu-tailerra</i>	vulcanizados: <i>bulkanizatuak</i>
taller: <i>tailerra, lantegia</i>	zapatería: <i>zapata-denda</i>

ESTABLEZIMENDUAREN IZEN BEREZIA

- **Izen berezia** establezimenduaren izen generikoaren eskuinean eranstean da; izen bereziari inongo deklinabide-atzizkirik jarri beharrik gabe.

Adibidez: **ABAILAN** auto-tailerra

Alkiza aroztegia

Mateo janari-denda

EGUZKI BIDAIA AGENTZIA

Maite mertzeria

XAMUR harategia

Martinez zapata-denda

Ostaizka gozotegia

... OHARRAK ...



JENDEARENTZAKO OHARRAK

- Jendeari zerbait jakinarazteko edo zerbaitetaz ohartarazteko **errotulu** edo **kartelak** erabiltzen dira establezimenduetan. Bertan jartzen diren mezu batzuk finkoak izan ohi dira (adibidez, ez erre) eta beste batzuk berriz, aldi baterakoak izan ohi dira (adibidez, *beherapenak*).
- Hona maiz erabiltzen diren ohar eta hitzen **zerrenda** gaztelaniaz eta euskaraz:

a mitad de precio: *erdi-prezioan*

abierto: *irekita; zabalik*

abrimos los sábados por la mañana: *larunbat goize(t)an irekitzen dugu/irekia/zabalik*

administración: *administrazioa*

ahora más barato: *orain merkeago*

almacén: *biltegia*

antes / ahora: *lehen / orain*

anuncios: *iragarkiak*

aparcamiento: *aparkalekua*

apresúrese: *zatoz lehenbailehen*

archivo: *agiritegia; artxiboa*

artículos fin de temporada: *denboraldi-bukaerako gaiak*

biblioteca: *liburutegia*

boletos para la cesta (de Navidad): *(Gabonetako/Eguberrietako) saskirako txartelak*

caballeros: *gizonezkoak*

cerrado los lunes por la mañana: *astelehenetan goizez itxi egiten dugu; astelehen goize(t)an itxi egiten dugu/itxita*
 cerrado por defunción: *heriotzagatik itxita*
 cerrado por reformas: *berritze-lanengatik itxita; itxita, berritze-lanetan ari gara*
 cerrado por vacaciones: *oporrengatik itxita; oporretan gaude*
 cerrado: *itxita*
 cesta de Navidad: *Gabonetako/Eguberrietako saskia*
 cestas para la compra, utilícelas por favor: *erosketetarako saskiak, erabili mesedez*
 cierre su bolsa aquí: *itxi (ezazu) poltsa hemen*
 circuitos: *ibilbideak*
 cita previa por teléfono: *ordua hartzeko telefonoz deitu*
 cocina: *sukaldea*
 comedor: *jangela; jantokia*
 descanso semanal: *asteko atsedeen-eguna*
 descuentos (viaje novios): *(eztei-bidaiak/bidaiantzat) merkeago*
 despacho: *bulegoa*
 dispensa: *jakitokia; jaki-gordailua; despentsa*
 dirección: *zuzendaritza*
 el libro de reclamaciones está a disposición del cliente: *bezeroak erreklamazio-liburua noiznahi eska dezake*
 empuje; empujar: *bultza*
 en venta: *salgai*
 enseñe su bolso al salir: *erakutsi (erakuts ezazu) poltsa irteterakoan/ateratzera-koan/irteeran*
 entrada por la otra puerta: *sarrera beste atetik; beste atetik sartu*
 entrada: *sarrera*
 entre sin llamar: *sartu deitu gabe; aurrera*
 entreplanta: *solairuarterkoa*
 especialidad en ...: *berezitasunak: ...*
 espere su turno por favor: *zure txanda iritsi arte itxaron/zain egon, mesedez/arren*
 espere un momento por favor: *itxaron pixka bat, mesedez/arren; zaude/egon pixka*

batean, mesedez/arren
 existe un libro de reclamaciones a disposición del público: *erreklamazio-liburua (ba)dago, bezeroak erabili nahi izanez gero*
 facilite cambio, por favor: *diru xehea eman, mesedez/arren*
 farmacia(s) de guardia: *goardiako farmazia(k)/botika(k)*
 festivos: *jaiegunak*
 fiesta patronal: *zaindariaren/patroiaren jaia*
 fin de serie: *azken salgaiak*
 gracias por su compra: *eskerrik asko hemen erosteagatik*
 gracias por su visita: *eskerrik asko etortzeagatik*
 gran surtido: *aukera handia/zabala; aukera paregabea; sekulako aukera*
 grandes facilidades de pago: *ordaintzeko erraztasunak; erraz ordaintzeko era/modua*
 grandes rebajas: *beherapen handiak, egundoko merkealdia*
 hay lotería de Navidad: *Gabonetako/Eguberrietako loteria dugu*
 hay lotería del Niño: *Erregetako loteria dugu*
 hay X(vainas, queso...) del país: *bertako/hemengo X (lekak, gazta...) dau(z)kagu/d(it)ugu*
 horario al público: *jendearentzako ordutegia*
 horario de verano: *udako ordutegia*
 horario: *ordutegia*
 la mejor calidad, aquí: *kalitaterik hoberena hemen*
 laborables: *lanegunak; astegunak*
 lavabo(s): *komuna(k)*
 liquidaciones: *likidazioak*
 liquidación por cese de negocio: *likidazioa, itxi egingo dugu eta; denda itxi aurretiko likidazioa*
 liquidación por renovación de existencias: *salgaien berritzea dela eta, likidazioa; likidazioa, salgaiak berritu egingo ditugu eta; salgaiak berritu aurretiko likidazioa*
 lista de precios: *prezioen zerrenda; prezio-zerrenda; prezioak*
 llame, por favor: *dei egin, mesedez/arren; hots egin, mesedez/arren*

lo mejor al mejor precio: *hoberena preziorik onenean*
 los mejores precios: *preziorik onenak/hobere-nak/beheratuenak*
 lunes por la mañana descanso semanal: *astelehen goizez/goize(t)an (atseden hartzeko) itxita*
 mañanas: *goizez; goize(t)an*
 más barato imposible: *ezin merkeago*
 muchas gracias por su visita: *eskerrik asko/mila esker etortzeagatik*
 no cerramos al mediodía: *eguerdi(t)an ez dugu ixten*
 no fumar: *ez erre*
 no se admiten cheques: *ez dugu txekerik onartzen*
 no se admiten devoluciones: *ez da ezer itzul-teza onartzen; ez dugu salgaiarik aldatzen*
 no se admiten propinas: *ez dugu eskupekorik onartzen/hartzen*
 Nº premiado en la cesta del 21 de Diciembre: *abendua-ren 21eko zozketan saritutako zenbakia (zk.)*
 ocasión: *aparteko aukera*
 oferta de la semana/del mes: *asteko/hileko eskaintza*
 oferta de Navidad: *Eguberrietako/Gabonetako eskaintza*
 oferta especial del género de verano: *udako salgaien/jeneroaren eskaintza berezia*
 oferta especial en el interior: *eskaintza berezia barruan; aparteko eskaintza barruan*
 oferta(s) especial(es): *eskaintza berezia(k); aparteko eskaintza(k)*
 oferta(s) (de) lanzamiento: *hasierako eskaintza(k)*
 oferta(s) (de) última hora: *azken eskaintza(k)*
 oferta: *eskaintza*
 pida día y hora: *eskatu ordua eta eguna, eska itzazu eguna eta ordua*
 planta baja: *behe-solairua/oina; beheko solairua/oina*
 por favor, dejen aquí los bolsos: *poltsak hemen utzi, mesedez/arren*
 por favor, no tocar: *ez ukitu, arren/mesedez* ▶

por la compra de X le regalamos/regalo X: *X erosiz gero, X erregalatuko/oparituko/opari egingo di(zki) zugu*
 precios extraordinarios: *paregabeko prezioak/prezio paregabeak*
 precios muy interesantes: *oso modu onean*
 precios muy rebajados: *oso prezio merkatuak/beheratuak*
 precios: *prezioak*
 primera planta (1ª planta): *lehen solairua/oina (1. solairua/oina)*
 privado: *pribatua*
 probador(es): *aldagela(k)*
 productos de Navidad: *Eguberrietako/Gabonetako produktuak/gaiak*
 prohibida la venta de tabaco a menores de 16 años: *debekatua dago 16 urtetik beherakoei tabakoa saltzea*
 prohibido el consumo de bebidas alcohólicas a menores de 16 años: *16 urtetik beherakoek debekatua dute alkohol-dun edariak hartzea*
 prohibido fumar: *ez erre*
 rebajas especiales: *egundoko beherapenak/egundoko merkealdia*
 rebajas: *beherapenak; merkealdia*
 reservado: *erreserbatua; gordeta*
 rómpase en caso de incendio: *sua piztuz/izanez gero hautsi*
 ropero: *arropategia; jantzitegia*
 sala de espera: *itxaron-gela*
 saldos: *merkealdia/salgai-hondarrak*
 salida de emergencia: *larrialdietarako irteera; larrialdi-irteera*
 salida: *irteera*
 se (re)cogen encargos: *enkarguak hartzen ditugu*
 se alquila: *alokatzeko; alokatu egiten dugu*
 se ruega no tocar, le serviremos, gracias: *ez ukitu mesedez! geuk emango dizugu, eskerrik asko*
 segunda mano, de: *bigarren eskukoa*
 segunda planta (2ª planta): *bigarren solairua/oina (2. solairua/oina)*
 señoras: *emakumezkoak* ▼

servicio a domicilio; se sirve a domicilio: *etxerainoko zerbitzua; erositakoa/enkarguak/mandatuak etxeraino eramaten d(it)ugu*

servicios de señoras/caballeros: *emakumezkoen/gizonezkoen komunak*

servicios: *komunak*

siempre a su servicio: *beti zure zerbitzura; zuk nahi duzunerako (gauzkazu)*

silencio por favor: *isilik, mesedez*

sírvase usted mismo: *zuk zeuk hartu/har ezazu; har ezazu zeuk; aukera ezazu zuk zeuk*

sorteamos una hermosa cesta entre nuestros clientes: *saski eder bat zozketatuko dugu bezeroen artean*

tablón de anuncios: *iragarki-taula*

tallas sueltas: *taila/neurri solteak* ►

taller: *lantegia; tailerra*

tardes: *arratsalde/arratsaldean*

tire; tirar: *tira; erakarri*

todo más barato: *dena merkeago*

últimos días: todo a 1.000, 2.000 o 3.000 pesetas: *azken egunak: guztia 1.000, 2.000 edo 3.000 pezetatan*

últimos días: *azken egunak*

use siempre los guantes: *erabil itzazu beti eskularruak*

vea nuestros precios: *ikusi/ikus itzazu gure prezioak*

vestuarios: *aldagelak*

volvemos enseguida: *berehala/segituan etorriko/itzuliko/bueltatuko gara*

X % de descuento: *% X(e)ko beherapena* ■

... ORDUTEGIA ...

ordutegia

astelehenetik ostiralera
06:45 - 13:00
16:30 - 20:00

larunbat eta igandetan
07:00 - 13:00

ORDUTEGIA

astelehenetan
16:00 - 20:00

asteartetik ostiralera
10:00 - 13:00
16:00 - 20:00

larunbatetan
10:00 - 14:00

ordutegia

astelehenetik ostiralera
09:00 - 13:00
15:30 - 19:30
astelehen arratsaldean itxita
ostiralean ez dugu itxen bazkalorduan

larunbatetan
07:00 - 16:30

➤ Orduak

Zer ordu da?

- ordu bata
- ordu biak
- hirurak
- laurak
- bostak
- seiak
- zazpiak
- zortziak
- bederatzia
- hamarrek
- hamaikak
- hamabiak
- ordu bata eta bost
- ordu biak eta hamar
- hirurak eta hoge
- laurak eta hogeita bost
- ...

Zer ordutan...?

- ordu batean
- ordu bietan
- hiruretan
- lauretan
- bostetan
- seietan
- zazpitan
- zortzietan
- bederatzietan
- hamarretan
- hamaiketan
- hamabietan
- ordu bata eta boste(t)an
- ordu biak eta hamarre(t)an
- hirurak eta hoge(et)an
- laurak eta hogeita boste(t)an
- ...

<ul style="list-style-type: none"> • ordu bata eta laurden(a) ordu biak eta laurden(ak) hirurak eta laurden(ak) ... • ordu bata eta erdiak ordu bi eta erdiak hiru eta erdiak ... • ordu bata laurden gutxi(ago) ordu biak laurden gutxi(ago) hirurak laurden gutxi(ago) • ordu bata hogeita bost gutxi(ago) ordu biak hoge gutxi(ago) hirurak hamar gutxi(ago) • hamaseiak eta berrogeita hamalau • 7 ordu, 2 minutu eta 6 segundo 	<ul style="list-style-type: none"> • ordu bata eta laurdenetan ordu biak eta laurdenetan hirurak eta laurdenetan ... • ordu bata eta erdietan ordu bi eta erdietan hiru eta erdietan ... • ordu bata laurden gutxi(ago)tan ordu biak laurden gutxi(ago)tan hirurak laurden gutxi(ago)tan • ordu bata hogeita bost gutxi(ago)tan ordu biak hoge gutxi(ago)tan hirurak hamar gutxi(ago)tan • hamaseiak eta berrogeita hamalau(t)an • 7 ordu, 2 minutu eta 6 segundotan
---	--

- **Zer ordu arte?** ordu bata arte; ordu bi eta erdiak arte...
- **Zer ordutatik zer ordutara/zer orduak arte?** hamarretatik ordu bata arte/ordu batera; zortzietatik ordu biak arte/ordu bietara...
- **Zifraz, ISOren (International Standardization Organization: Estandarizaziorako Nazioarteko Erakundea) arabera**

Orduak, minutuak eta segundoak bina digituz eta bi puntuz bereizita.

<i>Adibidez:</i>	10:00 - 13:30	10:00etatik 13:30ak arte (edo 13:30etara)
	16:30 - 19:30	16:30etatik 19:30ak arte (edo 19:30etara)

... KOPURUAK, KANTITATEAK ...

PREZIOA EDO SALNEURRIA

➤ Zerbaiten prezioaz galdetzeko, eskuarki, honako forma hauek erabili ohi dira:

- Zenbat balio du honek?
- Zenbat da hau?
- Zenbat da denalguztia?
- Zenbatean dago gazta?
- Zenbatean daude babarrunak?
- Zenbatekoa da gazta hau?



➤ Eta aurreko galdereri erantzuteko, honako esapideok erabiltzen dira, besteak beste:

- Honek ehun pezeta balio du.
- Guztira bostehun pezeta (500 pta.) dira.
- Bost duro/ogerleko dira.
- Gazta bi mila pezetatan dago.
- Babarrunak sei ehun pezetatan daude.
- Hori bostehun pezetakoa da; hau merkeagoa da.
- Hauek ehun pezetakoak dira eta horiek milakoak.

~~balio ditu~~

➤ Hona hemen prezioarekin zerikusia duten beste zenbait esapide:

- Hori oso merkea da; hau, ordea, izugarri garestia.
- Hauek merke-merke daude.
- Bai garestia! Garestitxoa da, bai, baina oso ona.
- Zenbat kosta/kostatu zaizu? Ezer ez. Dohain eman didate.
- Ez duzue deskonturik egiten?
- Etxe hori salgai dago.
- Nola ordainduko duzu, dirutan ala txartelaz?
- Mila pezetatan erosi dut.

~~salzen da~~

~~pezetazatik~~

- Bakoitzeko mila pezeta dira.

~~bakoitzazatik~~

- Hamabost pezeta fotokopiako.


~~fotokopiazatik~~

Atal hau Entzi eta Ilari Zubiriren *Euskal Gramatika Osoa* liburutik hartua dago; ikus bibliografia zehaztasunetarako.

PISUA

- Gauzen pisua adierazteko, honako egitura hau erabiltzen da: lehendabizi, pisua gramo edo kilotan adierazten da, eta ondoren, gaia edo materia esaten da mugagabean (hau da, artikulurik gabe). *Adibidez:*

- Kilo erdi madari_erosi dut/ditut.
- Kilo t'ardi sagar_ekarri dut/ditut.
- Jarri bi kilo patata_ eta kilo erdi tipula:
- Jarri ehun gramo txorizo_ eta beste ehun urdaiazpiko_
- Ipnidazu libra erdi gazta_ eta ehun gramo pernil_



~~kilo erdi madariak~~

~~kilo t'ardi sagarrak~~

~~bi kilo patatak eta
kilo erdi tipulak~~

~~ehun gramo txorizoana(arena)
eta ehun urdaiazpikoana(arena)~~

~~libra erdi gaztana eta
ehun gramo pernilana~~

- Kontuz! Ez nahastu kilo erdi (1/2) eta kilo t'ardi (kilo eta erdi) formak.

- Hona hemen pisua adierazten duten beste zenbait esapide:

- Hau kilo erdikoa da eta hori kilo t'erdikoa.
- Lau kiloko pakete bat geratzen da.
- Hau oso astuna da: ehun kilotik gorakoa, gutxienez.
- Hori oso arina da: hogeit hamar gramo ere ez du pisatzen.

~~lau kilotako~~

EDUKIERA

- Edukiera adierazteko, pisua adierazteko erabiltzen den egitura bera erabiltzen da, baina unitateak aldatuz. *Adibidez:*

- Litro erdi ur_ bota diot, baina ez da nahikoa.
- Litro t'ardi esne_ekarri dut.
- Eros ezazu litro bat ardo_.
- Lau litro gasolina_ besterik ez da geratzen.
- Hiru litro t'ardi sagardo_ edan dugu bion artean.



~~litro erdi ura~~

~~litro t'ardi esnea~~

~~litro bat ardoa~~

~~litro t'ardi sagardoa~~

- Bistan denez, hemen ere, materia adierazten duen hitza atzean eta deklinabidearen forma mugagabean (hau da, artikulurik gabe) jartzen da.

- Edukiera adierazten duten esapideak izenlagun gisa erabiltzeko, '-KO' atzizkia erantsi behar zaie unitateei. *Adibidez:*

- Hogei litroko bidoia ekarri dut.
- Litro erdiko botila gutxi da; litro t'erdikoa hartu.

~~hogei litrotako~~

KANTITATEA ETA KOPURUA

- Kantitatea eta kopurua adierazteko egitura, aurreko ataletan ikasitako berbera da, baina unitateak aldatuz. *Adibidez:*

- Dozena erdi piper_ baino ez dut nahi.
- Jarri dozena t'erdi porru_ eta dozena bat arrautza_.
- Dozena bi/bi dozena piper berde_ eta pare bat tomate_.
- Zoaz beheko dendara eta botila bat ardo_ ekarri.
- Lau kilo sagar gorri_ eta beste bi madari: erosi ditut.
- Bost zaku patata_ ekarri dizkizut.

~~piper berdeak~~



- **-KADA atzizkia.**

Zenbaitetan, ohizko unitateez gain, **-KADA** atzizkiak balia gaitzeko unitatea adierazteko. Atzizki horrek mugatzen duen hitzaren edukiera edo 'bertan sartzen den kantitatea' adierazten du. Hona hemen zenbait adibide:

- Bota ezazu bi koilarakada azukre_ eta ondo eragin.
- Platerkada handi bat indaba gorri_ jan dut.
- Zenbat gatz bota diozu? Eskukada bat gatz_ bota diot.
- Katilukada bat esne_ gosaldut ohi dut.

~~azukrea~~

~~indaba gorriak~~

~~gatz~~

~~esnea~~

- **Baso bat ur # ur baso bat.**

Egitura hauek sarri nahastu egiten dira euren arteko antza dela eta. Dena dela, esanahi desberdina dute. Ikus dezagun adibide baten bitartez:

- **Kopa bat whisky.**

Esapide horrek bi osagai dauzka: lehengoak (*kopa bat*) kantitatea adierazten du; bigarrenak (*whisky*) ordea, gaia edo materia adierazten du.

Beraz, kopa batean sartzen den whisky-kantitatea adierazten du; hau da, **edukia**.

- **Whisky-kopa bat.**

Esapide horretan *whisky-kopa* osagai bakarra da (hitz-elkartea da) eta objektu bat adierazten du: **ontzia** (normalean whyskya edateko erabiltzen den kopa; hutsik edo beste edari batez beterik).

Azter dezagun beste adibide bat. Demagun jabetxe batean gaudela eta egarri garela. Kasu horretan, **edallontzi bat ur** eskatuko dugu, *edukia* (ura) nahi baitugu, ez ontzia. Baina etiketazko bazkari batean egonez gero, eta ura edateko edallontzia falta bazaigu; hau da, ardoa edatekoa baino ez badaukagu, **ur-edallontzi bat** eskatuko dugu; izan ere, kasu horretan *ontzia* nahi dugu, ez edukia. Hona hemen beste zenbait adibide:

- Botila bat ur. (edukia: ura)
- Kaxa bat esne bota dut; minduta zegoen. (edukia: esnea)
- Zaku bat patata behar dut jabetxerako. (edukia: patatak)
- Pakete bat zigarro erostera noa. (edukia: tabakoa)

- Ur-botila bat ekarri ardoa eramateko. (ontzia: ur-botila)
- Esne-kaxa bat bota dut, hutsik zegoen eta. (ontzia: esne-kaxa)
- Patata-zaku bat behar dut gauzak sartzeko. (ontzia: patata-zakua)
- Zigarro-paketea erabili hautsontzi gisa. (ontzia: zigarro-paketea)

Laburbilduz:

edukia	kopurua + neurria + gaia	Hiru kaxa esne
ontzia	kopurua + gaia-neurria	Hiru esne-kaxa

DIMENTSIOAK

➤ Dimentsioak ere (*luzera, altuera, zabalera...*) pisua eta edukieraren antzera adierazten dira: lehenbazi unitatea jartzen da eta jarraian dagokion adjektiboa mugagabea (*luze, zabal, altu, sakon, lodi...*). Adibidez:

- Hiru metro luze dauka.
- Laurehun zentimetro zabal.
- Hogei metro sakon ditu.
- Bi metro lodi eta sei metro luze.

➤ Hala ere, maizago, beste egitura hau erabiltzen da: **hiru metroKO luzera**. Kopurua adierazten duen osagaiari -KO atzikia eransten zaio eta jarraian -ERA atzikiak eraturako izena jartzen da (*luzERA, zabalERA, altuERA, sakonERA, lodiERA...*). Adibidez:

- Honek hiru metroko luzera dauka.
- Oholak bi zentimetroko zabalera dauka.
- Zenbat metroko zabalera dauka? Hamar-hamabi.
- Sei metroko sakonera eman diot.
- Lau koma bost zentimetroko altuera dauka.


~~hiru metrotako~~

➤ Hona hemen **distantzia** adierazteko zenbait esapide:

- Zenbat kilometro(ta)ra dago? Hogei kilometro(ta)ra.
- Etxetik zenbat metro(ta)ra? Ehun bat metro(ta)ra.
- Ez dago hain urrun; handik bi kilometro(ta)ra.
- Zenbat metrokoa da? Zazpi ingurukoa.
- Zenbat metro karratu dauka etxeak? Ehun inguru.

ABIADURA

- Abiadura -KO atzikiaren bitartez adierazten da. Hona hemen zenbait adibide:
 - Zenbateko abiadura hartzen du? Laurogei kilometro orduko.
 - Abiadura handia hartzen du? Berrehun kilometro orduko.
 - Hogei metro *segundoko*.
 - Hamar metro *minutuko*.
 - Auto horrek berrehun kilometro *egiten ditu orduko*.
- Izen batekin doanean, hau da, izenlagun gisa, badirudi egokiena ordena aldatu eta unitate-hitzaren atzean -KO eranstea dela. *Adibidez:*
 - Zenbateko abiadura hartzen du?
 - Orduko laurogei kilometroko abiadura hartzen du.
 - Orduko ehun kilometroko abiadura hartzen du.
 - Segundoko hamar metroko azelerazioa dauka.



... ALFABETOA eta ORTOGRAFIA ...

Grafema	Izena
a	a
b	be
c	ze
d	de
e	e
f	efe
g	ge
h	hatxe
i	i
j	iota
k	ka
l	ele
m	eme
n	ene

Grafema	Izena
ñ	eñe
o	o
p	pe
q	ku
r	erre
s	ese
t	te
u	u
v	uve
w	uve bikoitza
x	ixa
y	i grekoa
z	zeta

H LETRAREN ERABILERA

- Bokalez hasten diren zenbakiek **h** dute hasieran: *hamar, hoge, hamahiru, hiru,...* **Salbuespena:** *ehun*.
- Erakusleek **h** dute hasieran: *hau, hori, hura, hauekin, horiengana, horixe,...* **Salbuespena:** *haiek erakuslearen indargarriak (eurak, eurek, euri, eurentzat,...).*
- Aditzetan, *hi* pertsonari dagozkion formetan: *hator, henbilen, haiz,...*
- Banakako hitzak (horiek banaka ikasi behar dira edota hiztegiatar jo behar da informazio bila):

Batzuek hitz-hasieran dute **h**: *hitz, hitzarmen, hotz, hasi, hain, herri, hartu, harpidetu, heldu, helbide, helburu, huts...* (**baina**, *arriku,...*).

Beste batzuek bokalen artean eta diptongo eta bokal artean: *ohitura, ehun, oihal, aho, lehiaketa, leiho, oihartzun, ohizko, ohar, ohartu, ahal, aholkularitza, bahitu, bihurtu, behe (baina, goi),...* (**baina**, *ziur, ziurtagiria,...*).
- Maileguzko hitzetan, jatorrizko hizkuntzako **h** gorde egiten da: *hipoteka, heredatu,...*

S, Z, X ETA TS, TZ, TX

- Euskalki batzuetan grafema horiei dagozkien soinuak ondo bereizten dira, baina beste batzuetan ez. Horren ondorioz, eta gaztelaniak nahiz frantsesak bereizten ez dituztenez, askok zailtasunak izan ohi dituzte idazterakoan.
- Grafema bakoitza noiz erabili erabakitzeko ordea, ez dago arau jakinik. Horregatik, hitzak buruz ikasi behar dira (irakurriz eta idatziz) edota hiztegian begiratu behar da.
- Dena den, hona hemen argibide batzuk:

	non ager daiteke?			adibideak	oharrak
	hasieran	barnean	amaieran		
S	●	●	●	sagar, sei,... oilasko,... lanabes,...	
Z	●	●	●	zahar, zazpi, zaldi,... gazte, gizon, izen,... inoiz, oinez, poz,...	Aditzaren laguntzailean beti 'z' ageri da: zara, zarete, zizkiguten,...
X	●	●	○	xerra,... axola,...	○ Hitz-amaieran ere ager daiteke, maileguzko hitzetan, hain zuzen. Adibidez: fax
TS	○	●	●	indartsu, itsaso,... amets, hauts, mahats,...	○ Hitz-hasieran ere ager daiteke, maileguzko hitzetan, hain zuzen. Adibidez: tsar, tsarina
TZ		●	●	atzapar, atzerri, itzain,... gatz, putz,...	Aditzaren laguntzailean beti 'tz' ageri da: zitzaion, zitzaizun,...
TX	●	●	●	txakolin, txanda,... kutxa, etxe,... tripotx, txepetx,...	

- Ahoskeraz:

S eta TS: Mihi-punta ahosabaiaren aurrealdearen kontra jarri behar da.

Z eta TZ: Mihi-punta goiko hortzen oinarriaren kontra ipini behar da.

X eta TX: Mihi-punta ahosabaiaren atzealdearen kontra ipini behar da.

... HITZ-AMAIERAKO -A ...

-A NOIZ BEREZKO, NOIZ EZ

- Euskal hitz batzuk **a** letraz bukatzen dira; amaierako **a berea dute**: *anaia, gauza, kultura, bidaiia, maila, eta abar*.

Gainontzeko hitzak beste edozein letraz bukatzen dira, baina **a** artikulua ere har dezakete (adib., *etxe, etxea*).

A berezkoa duten hitzak oso-osorik idatzi behar dira: *bi anaia, edozein gauza, kultura guztietan, eta abar*.

Hiztegian bere bukaerako **a**-rekin agertzen dira **a** berezkoa duten hitzak.

- **A** berezkoa duten hitzak ondokoak dira:

❶ Banakako hitzak (banan-banan buruz ikasi behar dira edo hiztegiara jo behar da informazio bila)

❷ Segidako atzizki edo amaiezez osatutakoak:

-KERIA: *alferkeria, handikeria, indarkeria, huskeria,...*

-TURA/-DURA: *prozedura, abiadura, ohitura, batura, kendura,...*

-TZA: *idazkaritza, agintaritza, zuzendaritza, soldadutza, merkataritza,...*

-KUNTZA: *berrikuntza, irakaskuntza, trebakuntza, eraikuntza,...*

-(K)ADA: *besarkada, matxinada, eskukada, pitxerkada, harrikada,...*

-KINTZA/-GINTZA: *zapatagintza, eztigintza, zurgintza, liburugintza,...*

-(T)ERIA: *gazteria, tresneria, bezeria, papereria,...*

-(K)ERA: *harrera, bukaera, idazkera, ahoskera, sarrera...*

-(K)ETA: *ikasketa, hizketa, biderkaketa, batuketa, heziketa, eragiketa,...*

-GURA/-KURA: *logura, azkura, ...*

-BERA: *bihozbera, hozbera, sinesbera, sentibera, izerbera,...*

-ANTZA: *frogantza, triskantza, mudantza, mesfidantza, konfiantza,...*

❸ Jatorrizko erdaran **a** letraz bukatutako hitz guztiak, adibidez: *justizia, ironia, finantza, ekonomia, kultura, literatura, enpresa, teknika, filosofia, garantia, hierarkia,...*

BEREZKO -A NOIZ GALTZEN DEN

- **-A** berezkoa duten hitz batzuek hitz-elkartearen lehen osagaia direnean **a** gal dezakete.

Ondokoak dira:

- **-IA bukaera** duten hitzak: *biologi azterketa, geologi irakaslea, pedagogi berrikuntza, ortografi arauak, erreferentzi puntua, diplomazi falta, bidai agentzia, Filosofi Fakultatea, Autonomi estatutua,...*

- **Eliza, burdina, hizkuntza, kultura, natura eta literatura** hitzak: eliz agintariak, burdin fabrika, hizkuntz gaitasuna, kultur ekintza, natur zientziak, literatur tradizioa.
 - Bi multzo horietako hitzak bi eratan idazteko aukera dago hitz-elkarketan:
 - a) Berezko a eta marratxorik gabe (*bidai agentzia, kultur ekintza..., adibidez*).
 - b) Berezko a-z eta marratxoaz (*bidaia-agentzia, kultura-ekintza... adibidez*).
- A berezkoa duten gainerako hitzek ez dute sekula galtzen (*trebakuntza-eskola, merkataritza-ganbara..., adibidez*).

... ZENBAKIEN IDAZKERA ...

➤ Kardinalak.

0 : zero	18 : hemezortzi (hamazortzi)	100 : ehun
1 : bat	19 : hemeretzi	200 : berrehun
2 : bi	20 : hoge	300 : hirurehun
3 : hiru	21 : hogeita bat	400 : laurehun
4 : lau	22 : hogeita bi	500 : bostehun
5 : bost	23 : hogeita hiru	600 : seiehun
6 : sei	700 : zazpiehun
7 : zazpi	30 : hogeita hamar	800 : zortziehun
8 : zortzi	31 : hogeita hamaika	900 : bederatziehun
9 : bederatzi	1.000 : mila
10 : hamar	38 : hogeita hemezortzi	2.000 : bi mila
11 : hamaika	39 : hogeita hemeretzi	3.000 : hiru mila
12 : hamabi	40 : berrogei	4.000 : lau mila
13 : hamahiru	50 : berrogeita hamar	10.000 : hamar mila
14 : hamalau	60 : hirurogei	100.000 : ehun mila
15 : hamabost	70 : hirurogeita hamar	1.000.000 : milioi
16 : hamasei	80 : laurogei	1.000.000.000 : bilioi
17 : hamazazpi	90 : laurogeita hamar	

- Hogeitik ehunerainoko zenbakiak honela idatziko dira.
41 : berrogeita bat 69 : hirurogeita bederatzi 97: laurogeita hamazazpi
- Ehunekoak lotuta idatziko dira.
300 : hirurehun 500 : bostehun 800 : zortziehun
- Milakakoak bananduta idatziko dira.
4.000 : lau mila 47.000 : berrogeita zazpi mila 91.000 : laurogeita hamaika mila
- Milioikoak ere bananduta.
1.000.000 : milioi bat 4.000.000 : lau milioi 100.000.000 : ehun milioi
- Ehunetik milarainoko zenbakiak era honetan idatziko dira: ehunekoak hamarrekoeatik bananduta, agertzen diren bi parteen arteko lotura «eta» delarik.
225 : berrehun eta hogeita bost
579 : bostehun eta hirurogeita hemeretzi
908 : bederatziehun eta zortzi
- Milatik gorako zenbakiak idazteko, irizpide bera. Hau da, milakoak ehunekoetatik bananduta; baita berauek hamarrekoeatik ere.
Milakoen eta ehunekoaren artean koma bat jartzen da (bi osagai bakarrik daudenean izan ezik, hauetan 'eta' partikulaz bereizten dira).

1.003 : mila eta hiru
 3.456 : hiru mila, laurehun eta berrogeita hamasei
 35.436 : hogeita hamabost mila, laurehun eta hogeita hamasei
 457.908 : laurehun eta berrogeita hamazazpi mila, bederatziehun eta zortzi

- Milioikoetan, beste horrenbeste.

137.954.218 : ehun eta hogeita hamazazpi milioi, bederatziehun eta berrogeita hamalau mila, berrehun eta hemezortzi.

➤ Ordinalak

- Ordinalak adierazteko -GARREN atzizkia erabiliko da letraz idazten direnean: bosgarren, bigarren, ...
- -GARREN atzizkiaren ikurra "." da.
- -GARREN esango litzatekeen tokian puntua jarriko da zenbakia zifraz idazten denean: 5. (bosgarren).
- Idazteko arauak kardinalentzat emandako berdinak dira, -GARREN atzizkia erantsita.

1. lehen, lehenen, lehenengo	7. zazpigarren	13. hamahirugarren
2. bigarren	8. zortzigarren	20. hogeigarren
3. hirugarren	9. bederatzigarren	21. hogeita batgarren
4. laugarren	10. hamargarren	100. ehungarren
5. bosgarren	11. hamaikagarren	1.000. milagarren
6. seigarren	12. hamabigarren	10.000. hamar milagarren

➤ Partitiboak

- A/B moduko zenbakiak zenbaki zatikiarrak dira.

A: zenbakitzailea

B: izendatzailea

Zenbakitzailea l denean, zenbaki zatikiarrei partitibo esaten zaie.

- - (R)EN atzizkia erabiltzen da kardinalari itsatsia:

- REN kardinala bokalez amaitzen denean

- EN kardinala kontsonantez amaitzen denean

1/5 = bosten ; 1/6 = seiren

1/20 = hogeiren ; 1/100 = ehunen

- Hiru salbuespen: 1/2: erdi (ez biren); 1/3: heren (ez hiruren); 1/4: laurden (ez lauren)

1/5 : bosten	1/9 : bederatziren	1/20 : hogeiren
1/6 : seiren	1/10 : hamarren	1/100 : ehunen
1/7 : zazpiren	1/11 : hamaikaren	1/1.000 : milaren
1/8 : zortziren	1/12 : hamabiren	1/10.000 : hamar milaren

➤ **Portzentaiak**

- Ordena edo hurrenkerari dagokionean, lehenik portzentaia edo ehunekoaren zeinua (%) eta ondoren dagokion zenbakia jartzen da.

Adibidez: % 5eko beherapena
% 15

~~15 %~~

- Bestalde, idazteko eta esateko bi era nagusi daude hedaturik: % **10** eta % 10a. Hala ere, lehenengo aukera (% 10) erabiltzea gomendatuko dugu.

• Horren arabera:	kontsonantez amaituta	bokalez amaituta
	% 5	% 8
	% 5ek	% 8k
	% 5i	% 8ri
	% 5en	% 8ren
	% 5eko	% 8ko
	...	

- Aditza pluralean: Ehuneko hamarrek (% 10ek) ez **zuten** onartu.
- Euskaltzaindiko Gramatika Batzordeak: Bizimodua % 4 garestitu da eta Bizimodua % 4an garestitu da formen artean lehena jo du egokien eta hori erabili behar dela dio. Beraz, egokia: Bizimodua % 4 garestitu da.

... DATA ...

ZIFRAK ETA LETRAK ERABILIZ

➤ Leku-izena eta data

Hainbat idazkitan (gutunetan, adibidez), letrak eta zifrak nahasiz jartzen dugu data; testuaren hasieran, barruan zein bukaeran. Urtea zifra bidez, inongo punturik tartekatu gabe (1998), hilabetea letra xehez (ekaina) eta eguna zifra bidez (25).

Horiek horrela, segidako hauek dira data idazteko modu erabilgarriak:

1998ko ekainaren 25a edo 1994ko ekainaren 25ean

1998ko ekainak 25

Eta toki-izena eransten bazaie horiei:

Usurbil, 1998ko ekainaren 25a edo Usurbilen, 1998ko ekainaren 25ean

Usurbil, 1998ko ekainak 25

Oharra: Testutik kanpo (hasieran zein bukaeran) guztiak erabil daitezke. Testu barruan, beheko aukera (1998ko ekainak 25) koma artean eta deklinatu gabe bakarrik erabil daiteke.

Adibidez:

Edo

San Tomasetan, abenduaren 21ean, arratsaldez itxita
izango dugu

Baina ez!

San Tomasetan, abenduak 21, arratsaldez itxita
izango dugu

Eta bai

~~1997ko urtarrilak 14an bidalitako eskaerari
erantzunez,...~~

1997ko urtarrilaren 14an bidalitako eskaerari
erantzunez,...

➤ Deklinabidea

Deklinabidearen atalean ikus dezakegunez, edozein izen bezala deklinatzen dira zenbakiak ere eta zifren atzetik tarterik utzi gabe eransten zaie deklinabide-atzizkia.

Adibidez: 8an, 24ko, 19k, 1998rako

Gogoan izan zifren atzetik jartzen den puntuak "-garren" esan nahi duela, eta, beraz, ordinala erabili nahi izanez gero jotzen dela horretara. Horrelakoetan, puntuari deklinabide-atzizkia jarraian lotu besterik ez dago.

Adibidez: 1988.ean, 1994.eko, 1995.etik,...

Data osorik idatzi behar ez dugunerako (testuaren barruan, eskuarki) hona hemen zenbait ohar:

Urtea aipatzen dugunean ez dago a erantsi beharrik: 1994 edo 1994a

Urtea eta hila: 1994ko abendua / abenduan / abendutik / abendura/...

Hila eta eguna: abenduaren 13a eta, koma artean joanez gero, abenduak 13 edo abenduaren 13a (adib. Bihar, abenduak 13,... edo Bihar, abenduaren 13an,...).

Azken hori, gauden hilabete bereko aipamena baldin bada, beste era honetan ere jar daiteke: Bihar, hilak 13,... edo Bihar, hilaren 13an,...

Erreferentziazko eguna hileko lehenbiziko egunari dagokionean, bitara esan daiteke: martxoaren lehena, martxoaren bata. (Baina beti, *martxoak bat*)

Urteak deklinatzeko ohar bi:

Kontuan eduki behar da urtea kontsonantez ala bokalez amaitzen den: 1993ko, 1994ko, 1995eko

Orain arte ez bezala, **au diptongoa ez da kontsonantetzat hartzen** eta, hortaz, bokalez bukatuak bezala deklinatzen da: 1984ko eta EZ 1984eko.

Daten aipamenetan gehien erabilitakoa leku-denborazkoen deklinabidea denez, hona hemen lagungarri gerta daitekeen zenbait kasu:

NOIZ	1991n	1994an	1995ean	1997an	2001ean
NOIZKO	1991ko	1994ko	1995eko	1997ko	2001eko
NOIZTIK	1991tik	1994tik	1995etik	1997tik	2001etik
NOIZ ARTE	1991 arte 1991ra	1994 arte 1994ra	1995 arte 1995era	1997 arte 1997ra	2001 arte 2001era

ZIFRA HUTSEZ

- Toki gutxi eta jakina duten inprimaki, txartel, jendearentzako ohar, eta abarretan jartzen da data zifra hutsez. ISO erakundeak (International Standardization Organization, Estandarizariorako Nazioarteko Erakundea) horretarako emandako arauak jarraitzen dira nazioartean.

Horien arabera, euskarak berak ere eskatzen duen moduan, data honako hurrenkeran idazten da: urtea-hila-eguna.

Adibidez:

1998-02-13

LETRA HUTSEZ

- Beste zenbait idazkitan, egiaztagiri eta txekeetan batez ere, letra hutsez idazten da data.

Horiek horrela, ondokoa izango genuke:

Usurbilen, mila bederatziehun eta laurogeita hamazazpiko abenduaren hamahiruan

Horren inguruan argibide gehiago nahi izanez gero, ¹⁸⁸ ikus zenbakien idaztarauak (27. orrialdea).

Hilak		Egunak	
urtarrila	urt.	astelehena	al.
otsaila	ots.	asteartea	as.
martxoa	mar.	asteazkena	az.
apirila	api.; apr.	osteguna	og.
maiatza	mai.	ostirala	or.
ekaina	eka.	larunbata	lr.
uztaila	uzt.	igandea	ig.
abuztua	abu.		
iraila	ira.		
urria	urr.		
azaroa	aza.		
abendua	abe.		

(Euskaltzaindiaren arauen arabera, letra xehez — edo minuskulaz — idazten dira).

Jaiegunak
Andre Mari eguna
Astearte-ihaute(ri)a, Ihaute Motza edo Ihauterietako Asteartea
Astelehen-ihaute(ri)a
Pazko Zaharra
Pazko-astelehena
Eguberri-eguna
Erramu-igandea, Erramu-eguna edo Erramu-domeka

- Errege-eguna
- Hausterre-eguna, Hauts-eguna edo Hautsen eguna
- Igande-ihaute(ri)a, Zaldun-ihaute(ri)a edo lhauterietako igandea
- Konstituzio-eguna
- Larunbat Santua
- Ostegun Santua
- Ostiral Santua
- San Inazio eguna
- San Tomas eguna
- Santiago eguna edo Done Jakue Apostoluaren eguna
- Santu Guztien eguna edo Domuru Santuen eguna
- Urteberri-eguna

Abuztu osoan goizez bakarrik irekiko dugu denda. Goizeko 8etatik eguerdiko 2etara.

Asteazkenean, San Tomas eguna, arratsaldez itxi egingo dugu denda.

Errege-egunaren bezperan denda ez dugu eguerdian itxiko.

... ERAGIKETA MATEMATIKOAK ...

IKURRA	ESAERA	ADIERAZPENA	ERAGIKETA	ERAGIGAIK	EMAITZA	ADIBIDEA
+	gehi	$a + b$ a gehi b	batuketa	batugaiak	batura	batugaia + batugaia = batura $5 + 6 = 11$ bost gehi sei berdin hamaika
-	ken	$a - b$ a ken b	kenketa	kenkizuna kentzailea	kendura	kenkizuna - kentzailea = kendura $9 - 2 = 7$ bederatzi ken bi berdin zazpi
X	bider	$a \times b$ a bider b	biderkaketa	faktoreak (biderkagaiak) biderkakizuna biderkatzailea	biderkadura	faktorea x faktorea = biderkadura $4 \times 2 = 8$ lau bider bi berdin zortzi
:	zati	$a : b$ a zati b	zatiketa	zatikizuna zatzizailea	zaidura	zatikizuna : zatzizailea = zaidura $10 : 5 = 2$ hamar zati bost berdin bi
	ber	a^b a ber b	berreketa	berrekizuna berretzailea	berretura	berrekizuna ber berretzailea = berretura $3^2 = 9$ hiru ber bi berdin bederatzi
$\sqrt{\quad}$	erro	$a \sqrt{b}$ a erro b	erroketa	errokizuna errotzailea	erro(dur)a	errotzailea $\sqrt{\quad}$ errokizuna = erro(dur)a $2 \sqrt{16} = 4$ bi erro hamasei berdin lau

... HELBIDEA ...



KALE-IZENDEGIA

Tokian tokiko udalak euskarazko kale-izendegia du. Ez dugu zertan euskaratze-lanak egi-
ten ibili. Halere, hainbat argibide emango dizkizugu:

➤ Izen generikoen zerrenda:

alameda: *zumardia*

alto: *gaina*

avenida: *hiribidea edo etorbidea*

barrio: *auzoa*

calle: *kalea*

callejón: *kalexka*

calzada vieja: *galtzada zaharra*

calzada: *galtzada*

camino: *bidea*

grupo: *auzunea*

parque: *parkea*

pasaje: *pasaia*

paseo: *pasealekua edo ibiltokia*

plaza, plazuela, plazoleta: *plaza edo enparantza*

travesía: *zeharkalea, zeharbidea*

urbanización: *urbanizazioa*

Gamon zumardia

Errondo gaina

Nafarroa hiribidea

Labe Garaieta auzoa

Portu kalea

San Bartolome kalexka

Egia galtzada zaharra

Olaeta galtzada

Arbiza bidea

Alaiondo auzunea

Koldo Mitxelena parkea

Iruresoro pasaia

Sagastieder pasealekua

Adarra plaza

Rodil zeharbidea

Etxadi urbanizazioa

- **Izen propioa** bi modutan lotzen zaio izen generikoari: **-(r)en** edo **-(e)ko** atzizkien bitartez edo 'ezer' gabe.

<i>Adibidez:</i>	-(r)en / -(e)ko	∅
	Gudari en enparantza	Zuloaga_ enparantza
	Errege Katoliko en kalea	Narrika_ kalea
	Askatasun aren hiribidea	Nafarroa_ hiribidea
	Erdiko kalea	

- **Ordena** edo **hurrenkerari** dagokionean, eskuarki, lehenik izen propioa eta ondoren izen generikoa jartzen da; baina salbuespen-modukoak, *adibidez:* Pasealeku berria, Kale Nagusia, Kale Berria,...
- **Zenbatgarren** oina edo pisua den adierazteko, zenbakiari puntua (.) jartzen zaio.

Adibidez:pasealekua, 16-3. ezk.

- Zenbait **laburdura** erabilgarri:

at.	(ataria)		ezk.	(ezkerra)
beh.	(behea)		z.g.	(zenbakirik gabe)
esk.	(eskuina)		zen.	(zentroa)
eskra.	(eskailera)			

... IDAZTEKO GOMENDIOAK ...

GUTUN ETA KOMUNIKAZIOAK IDAZTEAN KONTUAN HARTU BEHARREKOAK

Hona hemen zerbait (gutun, komunikazio edo antzeko idazkiren bat) idatzi behar duguneko kontuan hartu beharreko hainbat gomendio orokor:

- Idazkiak bere eraginik handiena lor dezan, idazterakoan beti ere **elkarrizketaren ordezkia** dela eta irakurlearen egoeran kokatzea komeni dela kontuan hartuko dugu.
- **Ordenatua** izan behar du. Mezua era logiko eta ordenatuan azalduko da eta gai bat baino gehiago egonez gero, gaiak banaka-banaka tratatu behar dira.

Klik
argazki-materiala

Donostian, 1996ko ekainaren 12an

agurra

sarrera
(gaia kokatzea)

Jaun/andre hori:

Aurtengo honetan gure produktuak kanpoan ezagutarazteko kanpainari ekin diogu.

Hori dela eta, gure ordezkari den Jokin Albisu jauna datorren apirilean Hego Amerikara joango da. Bidaia horretan gure produktuen promozioa egiteko asmoa du.

Bisitatzeko dituen bezeroen zerrendan zure enpresa agertzen da. Jakinaren gainean egon zaitezten, gutun honekin batera bidaltzen dizugu gure ordezkariak beteko duen ibilbidea erakusten duen orria.

Horrela bada, zuen laguntza izatea espero dugu.

Aldez aurretik eskerrak emanez, agur.

argibideak

agurra

azalpena

mamia
(asmoa azaltzea)

- **Argia eta zehatza** izan behar du. Hartzailleak irakurraldi batez ongi ulertzeko moduan idatzi behar dugu. Hori dela eta, ez da komeni esaldi luzeegiak idaztea eta, gainera, aditzera eman nahi dena bakarrik idaztea komeni da, alferrikako hitzak edo azalpenak jarri gabe.

Adjunto a la presente, billetes de tren por importe de 500 pesetas cada uno, correspondiente a la reclamación de nuestros clientes Sres. Pili Merino y Josu Salaberría, que por haber llegado el vuelo de N. York con 3 horas de retraso y al tener que cambiar los billetes, han tenido que abonar dicha cantidad (500 pts.x2=1.000 pts.).

esaldi laburrak

←

Honekin batera 500 pezetako tren-txartelak bidaltzen dizkizut. Pili Merino eta Josu Salaberría jaun-andereei dagozkie. N. York-eko hegaldia 3 orduko atzerapenez iritsi zen eta hori dela eta, itzulerako txartelak aldatu eta esandako diru-kopurua ordaindu behar izan zuten (500 pta.x2= 1.000 pta.).

- Gaztelaniaz lan egitera ohituta gaudela kontuan izanik, erraz jotzen dugu haren egituretara. Kontuz ibili beraz, eta **euskararen forma jatorrak** erabili.

adibidez:

Celebrar: egin	La reunión se celebrará en los locales de la asociación de comerciantes.	Bilera dendarien elkartearen egoitzan egingo dugu/dute .
ospatu	Motivo de la reunión: celebración del 10º aniversario de la creación de la asociación.	Bileraren zergatia: elkartearen sortu zeneko 10. urteurrena ospatzea .

- Testu bat idazten ari garenean esan nahi duguna idatziz jartzea zenbaitetan zaila egiten zaigu eta tratu egiten gara. Horrelakoetan **ahoz esatea** oso lagungarria da. Ondoren, ahoz esandakoa, huraxe bera, idazten saia zaitetz.
- Maila formaleko gutun hauetan **maiz errepikatu ohi diren esaldiak** daude. Horrelakoak idazteko “Komunikazioetarako esaldiak” atalean (43-56. orr.) daukagu laguntza.

... PUNTUAZIO-ZEINUAK ...

KOMA (,)

Pausa laburra adierazten du. Honako kasuetan erabiltzen da batik bat:

- Enumerazioetan. Esaldian funtzio bera duten segidako elementuen artean eta tarteko lokailurik ez dagoenean.

Denda, taberna, jatetxe, zerbitzu eta finantza-erakunde, akademia eta abarretan euskararen presentzia areagotzeko kanpaina jarri du martxan Siadeco ikerketa-taldeak bigarrenez.

- Menpeko esaldiak nagusiaren aurretik doazenean eta galdegai ez direnean.

Auzo elkartearen erabakiaren zain gaudenez, ezin izan dugu dokumentazio prestatu. Elkartearen eskaera kontuan izatea eskatzen dizuegu, herriko denda txikiek aurrera egiteko premiazkoa baita.

- Esaldiaren hari nagusia hausten duten osagaietan. Baita aposizioetan ere.

Ettxepare, lehen euskal idazlea, Sarrasketan jaiio zela uste dute.

- Deiki edo bokatiboa banandu behar denean.

Aizu, kaskamotz, zatoz lehenbailehen.

- Ondoko terminoek ere koma behar dute: **hau da, hots, esate baterako, azkenik, hala ere, adibidez, dena den, izan ere, beraz, hori dela eta,...**

Gazte txartela erabiltzeko aukera daukatenek, hau da, 18 urte bitarteko gazteek izango dute zozketan parte hartzeko aukera.

PUNTU ETA KOMA (;)

Komak baino pausaldi luzexegoa adierazten du.

- Ideien unitate logiko bereko bi klausula independenteren artean jartzen da.

“Euskara Merkataritzara” egitasmoak jarraipen eta lan finkoa eskatzen du; epe luzerako egitasmoa da.

- Ideia beraren bi alderdi desberdin adierazten dituzten bi klausulen artean.

Arrasaten emakumezkoak 19.191 dira; gizonezkoak, berriz, 13.134.

BI PUNTU (:)

Bi puntuek ere pausaldi luzea adierazten dute. Honako kasuetan erabiltzen da batik bat:

- Norbaiten edo nonbaiteko hitzak bere horretan testura ekartzen direnean.

Bergarako Udaleko euskara-arduradunak egitasmo honen baitan paisaje linguistikoa euskalduntzeak duen garrantzia aipatu du: “Hitzarmena sinatzean establezimendua

hizkuntzaren normalizazio-prozesuan autoinplikatzen da, bere egoera soziolinguistikoaren arabera konpromezu mailakatuak onartuz eta Udaleko Euskara Batzorde edo Zerbitzuaren ondorengo jarraipena onartuz.

- **Ondorengo aurrekoaren argibide edo adibide dela adierazteko.**

Kanpokoei posta-gastuak ordaintzea eskatzen zaie aldizkaria jasotzeko: Espainian 1.000 pta., Europan 5.000 pta. eta gainerakoan 12.000 pta.

- **Orduetan.**

Hauxe izango dugu abuztuko ordutegia: 8:00etatik 14:30ak arte.

PUNTUA (.)

Puntuak esaldiaren azkena markatzen du. Pausa osoa adierazten du. Honako kasuetan erabiltzen da:

- **Zentzu osoa duen periodoaren bukaeran. Paragrafoaren amaiera markatzen duenean, puntu eta aparte egiten da.**

Aurten, garrantzi berezia hartuko du establezimendu barruko paisaje linguistikoan euskararen erabilera handitzeko egingo den ahaleginak. Horretarako idazki-ereduen katalogoa prestatu da.

- **Laburduretan.**

adib., “adibidez” irakurriko delarik, *etab.* “eta abar”. Baina ez kontzeptu, magnitude, unitateak eta abar adierazteko jartzen diren ikurretan (m, kg eta EAJ-PNV, adibidez).

- **Zenbakien ondoren, “garren”en ordeiz.**

Lokala, Iturribide kaleko 6.ean dago.

ETEN-PUNTUAK (...)

- **Enumerazioa edo esan nahi denaren zentzua irekia uzteko modua da.**

Sagardoa ezagunena den eskualdea Gipuzkoako Beterri da: Astigarraga, Urnieta, Usurbil, Hernani, Oiartzungo inguruak...

Aurkikuntzaren garrantziaz konturatu balira...

- **Aipuetan, osorik ematen ez direnean.**

Egileak hitzaurrean dioen bezala: “Geure buruak euskalduntzat dauzkagun gehienok ere aitortu beharra daukagu ez garela gai gure lanbideko gora-beherei buruz bost minutu jarraian euskaraz mintzatzeko. Duela bizpahiru mendeko nekazariak...”

- **Isildu nahi duguna tartean geratzen bada, parentesi artean paratuko ditugu eten-puntuak.**

Dendariei, itzulpenak koloretako txarteletan maketatuta jasotzeko aukera eskainiko zaie, (...). Lan hori euskara-zerbitzuek egingo dute.

GALDERA-IKURRA (?)

- Galdera-ikurra galdera-esaldiaren bukaeran bakarrik idazten da.
Zeintzuk dira ordea, lanpostu horren betebeharrak?

HARRIDURA-IKURRA (!)

- Harridura-ikurra, harridura-esaldiaren bukaeran bakarrik idazten da.
Pentsaraztekoa, honek esaten duena!
- Harridura ezezik, beste ñabardura batzuk adierazteko ere erabiltzen da, hala nola, agin-
dua, kexua, etab. adierazteko.
Kontuz produktu honekin!

PARENTESIA [()]

- Bidenabar zerbait aipatu nahi edo daturen bat tartekatu nahi denean erabiltzen da
parentesia.
Guztira, autorearen 65 obra (54 oleo eta 11 marrazki) agertu dira.

MARRA (-)

- Parentesien antzera, datu edo argibideren bat tartekatzeko erabiltzen dira.
Gure etxeko teilatua – inguruko gainerako guztiak bezala – guztiz txikituta geratu zen.
- Elkarrizketetako txandak adierazteko ere erabiltzen da marra.
– Egunon Feli. Zer, dagoeneko lanean?
– Aizu! Ezin da momentu batean egunkaria irakurri, ala?

MARRATXOA (-)

- Izen arrotzei atzikia eransten zaienean.
*The Times-etik hartutako datuak dira.
Stockholm-era joatea erabaki zuten.*
- Lerroz aldatzean hitzak zatituta geratzen direnean. (Euskaltzaindiak hitzak silabaka zati-
tzea gomendatzen du; adibidez, *pol-tsa, guk, be-ze-ro-rik, e-ra-kus-le-hi-o,...*).
- Zenbait hitz-elkartetan.
☞ Ikus “Hitz-elkarketa” (96. or.)
Adibidez: Merkataritza-gutunak, jaun-andreak,...

KOMATXOAK (“ ”)

- Norbaitek esana edo idatzia hitzez hitz jaso nahi denean, komatxo artean jartzen da.

Arturo Kanpionek liburu honen hitzaurrean honakoa dio: “...Aberri maitasunez sututako olerkariaren bihotz-taupadak dira olerki hauek”.

- Era berean, komatxo artean idazten dira lan artistikoen izenburuak, liburu eta artikuluenak, izengoitiak, beste hizkuntzetatik hartutako terminoak edo ironiazko zentzuan erabiltzen diren hitzak.

“Euskara Merkataritzara” egitasmoak laugarren urtea bete du.

Badakigu Kristobal Kolon Amerika “aurkitu” zuen lehena ez zela izan.

APOSTROFOA (')


- Hitzen batean letra bat edo beste isiltzen dugunean erabiltzen da apostrofoa. Adibiderik argien eta kasik bakarra gutunen hasierako agurreko “eta erdi”ren kasua da.

Agur t'ardi.

Oharra: orain arte zenbakiekin ere erabili izan da (adib., Batzarrak hiru ordu t'ardi iraun zuen; Lau kilo t'ardi pisatzen du); baina, Euskaltzaindiak kasu horietan “eta erdi” osorik idazteko gomendioa eman du.

... KOMUNIKAZIOETARAKO ESALDIAK ...

Establezimenduaren izena; ^{es} Ikus 9–11. orr.



Hasierako agurrak, jartzekotan, neutroa izan behar du.
Adib.: jaun/andrea hori/horrek. (^{es} Ikus 59-60. orr.)

^{es} Datari buruz argibide gehiago 30. orrialdean dituzu.

Bukaerako agurrak, jartzekotan, neutroa izan behar du.
Adib.: Besterik gabe, (agur); Horrenbestez, (agur); Zure erantzunaren/erabakiaren zain, (agur).
(^{es} Ikus 60-61. orr.)

Komunikazioaren mezuan erabiltzen diren esaldiak mota askotakoak izan daitezke, ^{es} ikus 43–56. orr. Adibide honetan bi esaldi-mota daude: lehena (gaur ... arabera), "aurrekoarekin lotzekoa" da eta bigarrena (eskatutako ... dizkizut), "zerbait bidaltzea adieraztekoa".

Hasierako agurrak, jartzekotan, neutroa izan behar du.
 Adib.: jawn/andre hori/horrek. (ikus 59-60. orr.)

Datari buruz argibide gehiago 30. orrialdean dituzu.

zk. = zenbakia

FAXa		DATA
zk. <u>1.001</u>		<u>98-04-16</u>
Arazoren bat izanez gero, deitu telefono honetara <u>943-36 30 40</u>		Orralde-kopurua, hau barne <u>1</u>
NONDIK <u>Kalak argazkidenda</u>		<u>36 30 40</u>
IZENA <u>Miren Bereziartua</u>		
NORA <u>Kromakey</u>		
IZENA <u>Angel Iriondo</u>		<u>948-541 96 00</u>
TESTUA/MEZUA		
Lankidea:		
Inbentarioa egiten aritu garenez, ezin izan dugu dokumentazioa prestatu, baina lehenbailehen prestatzen saiatuko gara.		
Horrenbestez,		

Bukaerako agurrak, jartzekotan, neutroa izan behar du. Adibidez: Besterik gabe, (agur); Horrenbestez, (agur); Zure erantzunaren/erabakiaren zain, (agur). (ikus 60-61. orr.)

Komunikazioaren mezuan erabiltzen diren esaldiak mota askotakoak izan daitezke, ikus 46-53 orr. Adibide horretan dagoena "denbora irabaztekoa" da.

AURREKOAREKIN LOTZEKOAK

➤ Azalpena

Aurreko beste komunikazio baten edo beste zerbaiten aipamena egin nahi dugunean, ondoren esan behar duguna kokatzeko.

➤ Egitura

$$A) \left\{ \begin{array}{l} \text{NOIZKO} \end{array} \right\} \left\{ \begin{array}{l} \text{Zure} \\ \text{Zuen} \end{array} \right\} \left\{ \begin{array}{l} \text{gutunari} \\ \text{eskutizari} \\ \text{idazkiari} \end{array} \right\} \left\{ \begin{array}{l} \text{erantzunez} \\ \text{erantzutera} \end{array} \right\} \left\{ \begin{array}{l} \text{natorkizu(e)} \\ \text{gatozkizu(e)} \\ \text{nator} \\ \text{gatoz} \end{array} \right\}$$

$$B) \left\{ \begin{array}{l} \text{NOIZKO} \end{array} \right\} \left\{ \begin{array}{l} \text{Zure} \\ \text{Zuen} \end{array} \right\} \left\{ \begin{array}{l} \text{ZER} \end{array} \right\} \left\{ \begin{array}{l} \text{jaso ondoren, ...} \\ \text{dela eta, ...} \end{array} \right\}$$

$$C) \left\{ \begin{array}{l} \text{NOIZKO} \end{array} \right\} \left\{ \begin{array}{l} \text{Zure} \\ \text{Zuen} \end{array} \right\} \left\{ \begin{array}{l} \text{ZERI} \end{array} \right\} \left\{ \begin{array}{l} \text{dagokionez, ...} \end{array} \right\}$$

$$D) \left\{ \begin{array}{l} \text{NOIZ} \\ \text{NON} \\ \text{NOLA} \end{array} \right\} \left\{ \begin{array}{l} \text{hitz egindakoaren} \\ \text{erabakitakoaren} \\ \text{zenioenaren} \end{array} \right\} \left\{ \begin{array}{l} \text{arabera} \\ \text{ildotik} \\ \text{haritik} \end{array} \right\}$$

➤ Adibideak

Abenduaren 29ko zure gutunari erantzunez natorkizu. Hona hemen eskatu zenizkidan datuak: (...)

Abenduaren 29ko zuen gutuna jaso ondoren, aurrekontua berriz aztertzea erabaki dugu.

Uztailaren 2ko zure gutuneko eskaerari dagokionez, gure nahia ez izan arren, ezezkoa eman beharrean gaude.

97-06-19ko zure eskaerari erantzunez, honekin batera bidaltzen dizut bertan eskatutako informazioa.

Astelehen goizean telefonoz hitz egindakoaren arabera, honekin batera bidaltzen dizut SEGUR lerroko produktuen katalogoa eta prezioen zerrenda.

Gaztelaniazko baliokideak:

Respecto a la conversación mantenida anteriormente,...

En cuanto al escrito fecha 30-01-97 en el cual nos solicitaban...

Atal hau prestatzeko HAEEK 1990. urtean argitaratu zuen *Administrazio-lanerako oinarriko euskara ikastaroa* materialeko zenbait ataletan oinarritu gara.

BARKAMENA ESKATZEKOAK

➤ Azalpena

Egin behar dena edo egin beharko litzatekeena betetzen ez denean, garaiz betetzen ez denean edo ongi betetzen ez denean.

➤ Egitura

$$A) \left[\begin{array}{l} \left\{ \text{Barka(tu)} \right\} \left\{ \begin{array}{l} \text{mesedez} \\ \text{arren} \end{array} \right\}^* \\ \left\{ \text{Barkamena eskatu nahi} \right\} \left\{ \begin{array}{l} \text{dizu(e)t/gu} \\ \text{(ge)nizu(e)ke} \end{array} \right\} (\dots) \\ \left\{ \begin{array}{l} \text{Barkamena eskatuz} \\ \text{Barkamen eske} \end{array} \right\} \left\{ \begin{array}{l} \text{natorkizu(e)} \\ \text{gatozkizu(e)} \end{array} \right\} \end{array} \right]$$

* "mesedez" eta "arren" aurrean ere erabil daitezke eta ez dira derrigorrezkoak.

$$B) \text{ Sentitzen } \left\{ \begin{array}{l} \text{dut/dugu} \end{array} \right\} \left\{ \begin{array}{l} \text{atzerapen} \\ \text{hutsegite} \\ \text{oker} \\ \text{ezbehar} \end{array} \right\} \left\{ \begin{array}{l} \text{honek/horrek/hark} \\ \text{hauek/horiek/haiek} \end{array} \right\} \left\{ \begin{array}{l} \text{sortu} \\ \text{eragin} \end{array} \right\}$$

$$\left\{ \begin{array}{l} \text{di(zki)zu(e)n} \end{array} \right\} \left\{ \begin{array}{l} \text{kaltea(k)} \\ \text{arazoa(k)} \\ \text{eragozpena(k)} \\ \text{atzerapena(k)} \\ \text{traba(k)} \\ \text{oztopoa(k)} \end{array} \right\}$$

➤ Adibideak

Barkatu nire hutsegitea.

Barka, arren, gertatutakoagatik.

Barkamena eskatu nahi nizuke hutsegiteen ondorioz sortutako kalteengatik.

Barkamena eskatu nahi dizugu zure eskaera bidaltzeko orduan izan dugun atzerapenagatik.

Barkamena eskatuz gatozkizu faktura kobratzeko zain pasa behar izan duzun denboragatik.

Sentitzen dugu abioiaren atzerapenak (abioia atzeratu izanak) eragin dizkizuen arazoak.

Sentitzen dut gure oker horrek sortu dizuen kaltea.

Gaztelaniazko baliokideak:

Le(s) ruego me disculpe(n)...

Le(s) pido disculpas/perdón por...

BERRI ONAK EMATEKOAK

➤ Azalpena

Pozgarri izango den zerbait jakinarazi nahi denean.

➤ Egitura

A) $\left\{ \begin{array}{l} \text{Pozgarri zai(t)/(gu)} \\ \text{(Oso) atsegin du(t)/(gu)} \end{array} \right\} \left\{ \begin{array}{l} \text{adieraztea} \\ \text{esatea} \\ \text{.....} \end{array} \right\} \text{(ZER) ... -(E)LA}$

B) $\left\{ \begin{array}{l} \text{...-(e)la adierazi nahi} \\ \text{...-(r)en berri ematen} \end{array} \right\} \left\{ \begin{array}{l} \text{dizu(e)(t)/(gu)} \\ \text{gogo onez} \end{array} \right\} \left\{ \begin{array}{l} \text{atseginez} \\ \text{gogo onez} \end{array} \right\}$

➤ Adibideak

Pozgarri zait esatea hil honetako saria zuk irabazi duzula.

Atsegin dut adieraztea gurekin lanean hasteko zu aukeratu zaitugula, zuk egindako azterketa baita ondoen dagoena.

Egin zenigun eskaria gure zuzendariak onartu egin duela adierazi nahi dizugu atseginez.

“Arrasateko kaleak” liburua argitaratzeko egindako dirulaguntza-eskaera onartu izanaren berri ematen dizugu gogo onez.

Gaztelaniazko baliokideak:

Nos complace comunicarle...

Es de nuestro agrado hacerle saber...

BERRI TXARRAK EMATEKOAK

➤ Azalpena

Espero zen zerbait edo eskatutakoa betetzen ez denean edo osorik edo ondo betetzen ez denean.

➤ Egitura

$\left[\begin{array}{l} \left\{ \begin{array}{l} \text{Biziki/asko/oso eskertzen dugu zuek} \\ \text{Gure gogoz kontra} \\ \text{Biziki sentitzen dugu} \\ \text{Aitortzen dugu lan handia egin duzu(e)la} \end{array} \right\} \left\{ \begin{array}{l} \text{eginiko ahalegina} \\ \text{eskainitako laguntza} \\ \text{....} \end{array} \right\} \right] \text{, BAINA } \left\{ \begin{array}{l} \text{zoritarrez...} \\ \text{tamalez...} \\ \text{...gainditu / ...bete ez d(it)uzu(e)NEZ} \end{array} \right\}$

}	<p>...adierazi beharreau gaude.</p> <p>...azaldu beharra dugu.</p> <p>...esan beharra dugu.</p> <p>...ezin dugu zu(r)e(n) eskaria bete.</p> <p>...ezinezkoa da zu(r)e(n) proposamena onartzea.</p> <p>...ezin diezazu(e)kegu dirulaguntzarik eman.</p> <p>...-en berri eman beharreau gaude.</p> <p>...tamalgarria izanda ere ezin...</p>	}
---	---	---

➤ **Adibideak**

Aitortzen dugu lan handia egin duzuela, baina, zoritxarrez, ez dituzte zuen proposamenak onartu.

Eskatutako gutxieneko baldintzak bete ez dituzuenaz, dirulaguntza kendu beharreau gaudela adierazten dizuegu.

Biziki sentitzen dugu, baina azterketa gainditu ez duzunez, ezin zaitugu lanerako hartu.

Aitortzen dugu lan handia egin duzuela, baina, tamalez, ezin diezazukegu laguntzarik eman.

Gure gogoz kontra, baina zoritxarrez, aurtengo udatik aurrera ezin izango dugu zuen salgaien propagandarik egin.

Gaztelaniazko baliokideak:

Sentimos muchísimo comunicarles...
Sintiéndolo mucho le hacemos saber...

BIDALTZEA ADIERAZTEKOAK

➤ **Azalpena**

Zerbait bidaltzen denean.

➤ **Egitura**

{	Honekin batera	}	{	bidaltzen + di(zki)zu(e)t	}	{	}
				helarazten			zer	
				igortzen				

➤ **Adibideak**

Honekin batera bidaltzen dizut aurtengo produktu berrien zerrenda.

Gutun honekin batera igortzen dizuegu MALUT lerroko gure gaien katalogo orokorra eta prezioen zerrenda, zuek abenduaren 14ko gutunean hala eskatuta.

Honekin batera zuen 712. faktura kitatzeko txeketa bidaltzen dizuet; honako bidalketari dagokio: (...). Era berean, honekin batera bidaltzen dizuet X eta X jaun-andreen istripuen aurkako kontratuaren fotokopia.

Gaztelaniazko baliokideak:


Adjunto remito...

DENBORA IRABAZTEKOAK

➤ Azalpena

Epea bete ezin daitekeenean, beste zerbaiten zain gaudenean edota denbora gehiago behar dugunean.

➤ Egitura



➤ Adibideak

Batzordearen erabakiaren zain gaudenez, oraingoz ezinezkoa zaigu zuei erantzutea, baina lehenbailehen erantzuten saiatuko gara.

Udarako hartu diren langileen dokumentazioa prestatzen aritu garenez, ezin izan dugu oraindik zuena egin, baina kontuan izango dugu zuen presa eta ahal bezain pronto egiten saiatuko gara.

Inventarioa egiten aritu garenez, ezin izan dugu dokumentazioa prestatu, baina lehenbailehen prestatzen ahaleginduko gara.

DOLUMINAK EMATEKOAK

Andatzan, 1997ko abenduaren 15ean

Lankide hori:

A **B**

Benetan atsekabez hartu dugu zure aitaren heriotzaren berria.

Bera ezagutzeko ohorea izan genuenontzat kolpe mingarria izan da.

C **D**

Beti izango dugu gogoan hain maila handiko gizon hura.

Udaletxeko guztion izenean, sentipenez doluminak bidaltzen

E dizkizut. **D**

Oinazean lagun

Izpta.:Ander Leturia
Idazkaria

➤ **Aukera desberdinak**

A. Atsekabe handiz hartu dugu

Benetan atsekabez hartu dugu

B. zure aitaren/amaren/...

erakunde honetako ordezkari izan zenaren amaren (aitaren,...)

zure senar/emazte X jaunaren/andrearen

C. Beti izango dugu gogoan hain maila handiko gizona (andrea,...)

Ezin izango naizenez/garenez hiletetara (hileta-elizkizunetara) joan,

D. guztion izenean

Elkartearen izenean

Elkarteko guztion izenean

E. hain une larrian neure doluminik zinezkoena adierazi nahi nizuke

sentipenez doluminak bidaltzen dizkizut

gure doluminezko sentipenik zinezkoena adierazi nahi dizut

gure Erakundeak hain galera deitoragarriengatik daukan atsekabe sakona adierazten dizut eta gure dolumin eta atxikimenduzko sentipenik zinezkoena adierazi nahi dizut

eta etxekoei (eta bereziki amari) helaraztea eskatzen dizut.

baita berori bereziki zeure amari jakinaraz diezaiozula eskatzen ere.

eta berau familia osoari jakinaraz diezaiozula arren eskatzen dizugu.

ESKERRAK EMATEKOAK

➤ **Azalpena**

Nonbait egin diguten harrera ona, emandako laguntza eta abar eskertu nahi ditugunean.

➤ **Egitura**

A) $\left\{ \begin{array}{l} \dots\dots\dots \text{dela eta,} \\ \text{(zer)} \end{array} \right\} \left\{ \begin{array}{l} \text{jaso} \\ \text{har} \end{array} \right\} \left\{ \begin{array}{l} \text{itzazu(e)} \\ \text{ezazu(e)} \end{array} \right\} \left\{ \begin{array}{l} \text{gure} \\ \text{nire} \end{array} \right\} \left\{ \begin{array}{l} \text{eskerrik beroenak} \\ \text{eskerrik zintzoenak} \\ \text{eskerrak} \\ \text{esker ona} \end{array} \right\}$

B) $\dots\dots\dots \text{(NORK)}, \dots\dots\dots \text{(ZER)} \text{ eskertu nahi } \left\{ \begin{array}{l} \text{dizu(e)(t) / (gu)} \\ \text{genizu(e)ke / nizu(e)ke} \end{array} \right\}$

C) $\left\{ \begin{array}{l} \text{Lehenengo eta behin} \end{array} \right\} \left\{ \begin{array}{l} \text{nire} \\ \text{gure} \end{array} \right\} \left\{ \begin{array}{l} \text{eskerrik zientzoenak} \\ \text{[agertu nahi dizkizu(e)(t)(gu)]} \end{array} \right\} \left\{ \begin{array}{l} \dots\text{-(e)lako} \\ \dots\text{-agatik/-t(z)eagatik} \end{array} \right\}$

➤ **Adibideak**

Eskaini zeniguten laguntza dela eta, jaso itzazue gure eskerrik beroenak.
 Gure eskerrik beroenak agertu nahi dizkizuegu zuen laguntzagatik.
 Establezimendu honek zure laguntza bikaina eskertu nahi dizu.
 Ezer baino lehenago, gure eskerrik zintzuenak agertu nahi dizkizuegu jasotako opariagatik.
 Lehenengo eta behin, gure eskerrik beroenak laguntza eman diguzulako.
 Jatetxe honek zuen bisita/egonaldia eskertu nahi dizue.
 Nire eskerrik zintzuenak eskatu nizun informazioa hain azkar bidaltzeagatik.
 Honen bidez, Dendarien Elkarteko ekintzetan parte hartu izana eskertu nahi dizugu.


Gaztelaniazko baliokideak:
 Nuestro más sincero agradecimiento por...
 Queremos agradecerle sinceramente el haber...

GAITZETSI, KEXA ADIERAZI eta KRITIKA EGITEKOAK

➤ **Azalpena**

Zerbaiten kontrako protesta. Zerbaiti ondo ez deritzogunean.

➤ **Egitura**



Oh.: I edo II, biak batera ez
 I ondoren edo II aurretik "honen bidez" tarteka daiteke

➤ **Adibideak**

Establezimenduetarako onartu duzuen arautegi berria dela eta, gure kexa adierazi behar dizugu.
 Kanpainaren arduradun naizen honek nire desadostasunik biziena adierazten dizut, erabakia ez datorrelako bat lehenago esandakoarekin.
 Zure artikulua ez dela gure gustukoa izan adierazi nahi dizugu.
 Azken inkesta dela eta, honen bidez, gure desadostasunik biziena azaldu nahi dizugu bertan azaltzen diren zenbait galderagatik.

GONBIDAPENA EDO GONBITA



ANDATZAKO UDALA

(Nik)
MIRARI BEREZIARTU
Andatzako Udaleko alkateak

AGUR

*egiten dizu(t) eta atsegin handiz gonbidatzen zaitu(t)
ekainaren 15etik 20ra bitartean arratsaldeko 7etan, udaletxeko Areto
Nagusian egingo diren Merkataritzako Topaketetara.*

Andatzan, 1997ko apirilaren 16an



Laster zabalik!

- pintxo beroak
- eguneko menua
- musika-emanaldiak asteburuetan
- ...

Atsegin handiz gonbidatzen zaitugu
asteazkenean, martxoak 5, arratsaldeko 6etan
egingo dugun inauguraziora.

ZATOZ!

HARTU IZANA ADIERAZTEKOAK

➤ Azalpena

Bidalitakoa jaso dugula bidaltzaileari jakinarazi nahi diogunean.

➤ Egitura

$\left\{ \begin{array}{l} \text{Gutun} \\ \text{Idazki} \\ \text{Eskutitz} \end{array} \right\}$ honen bidez, $\left\{ \begin{array}{l} \text{ZER} \\ \text{hartu} \end{array} \right\}$ $\left\{ \begin{array}{l} \text{jaso} \\ \text{hartu} \end{array} \right\}$ $\left\{ \begin{array}{l} \text{dut} \\ \text{dugu} \end{array} \right\}$ -LA $\left\{ \begin{array}{l} \text{jakinarazten} \\ \text{adierazten} \end{array} \right\}$ -dizu(e) (t) (gu)

➤ **Adibideak**

Gutun honen bidez, apirilaren 5ean bidalitako ordenadore berrien eskuliburuak jaso ditugula jakinarazten dizut.

Honen bidez, hilaren 12an igorri zenidan dokumentazioa jaso eta aztertu dudala jakinarazten dizut.

Honen bidez, abuztuaren 28ko gure eskabidea jaso dugula adierazten dizut.

OHARTARAZTEKOAK

➤ **Azalpena**

Norbait zerbaitetaz konturuaraztea nahi dugunean edo norbaiti zerbait gogorarazi nahi diogunean.

➤ **Egitura**

A)
$$\left[\begin{array}{l} \text{Kontuan hartu beharra dago} \\ \left\{ \begin{array}{l} \text{Kontuan} \\ \text{Gogoan} \end{array} \right\} \left\{ \begin{array}{l} \text{eduki} \\ \text{har} \\ \text{izan} \end{array} \right\} \left\{ \text{ezazu(e)} \right\} \\ \dots \\ \left\{ \begin{array}{l} \text{Kontuan} \\ \text{Gogoan} \end{array} \right\} \left\{ \begin{array}{l} \text{hartzekoa} \\ \text{izatekoa} \\ \text{edukitzekoa} \end{array} \right\} \left\{ \begin{array}{l} \text{da} \\ \text{lizateke} \end{array} \right\} \\ \dots \text{-(E)LA} \end{array} \right]$$

B)
$$\left\{ \begin{array}{l} \text{Ohar(tu)} \\ \text{Kontura(tu)} \\ \text{Jabe(tu)} \\ \text{Gogora(tu)} \end{array} \right\} \left\{ \text{zaitez(te)} \right\} \left\{ \begin{array}{l} \dots \\ \text{(zertaz)} \\ \dots \text{-(E)LA} \end{array} \right\}$$

➤ **Adibideak**

Kontuan eduki ezazu eskaera egiteko azken eguna astelehena dela.

Kontura zaitez maitezaren lean amaitzen dela faktura ordaintzeko epea.

Kontuan edukitzekoa litzateke hornitzaile horrekin izan dugun harreman estua.

Kontuan hartu beharra dago oraindik ez dakigula aurrekontuan proiektu horrentzat kontusail edo partidarik esleituko den ala ez.

PROPOSAMENAK EGITEKOAK

➤ **Azalpena**

Adaketak, erabakiak, pertsonak, eta abar proposatzen direnean.

➤ Egitura

- A) $\left\{ \begin{array}{l} \text{nik} \\ \text{guk} \end{array} \right\} \dots \dots \dots \left\{ \begin{array}{l} \text{proposatzen} \\ \text{iradokitzen} \end{array} \right\} \left\{ \begin{array}{l} \text{dut/dugu} \\ \text{dizu(e) (t) (gu)} \end{array} \right\} \dots \dots \dots \left\{ \begin{array}{l} \text{(zertarako)} \end{array} \right\}$
- B) $\left\{ \begin{array}{l} \text{nire iritiz} \\ \text{nire ustez} \end{array} \right\} \left\{ \begin{array}{l} \text{on/hobe} \\ \text{komenigarri(ago)} \\ \text{bidezko} \\ \text{egoki} \end{array} \right\} \left\{ \begin{array}{l} \text{litzateke} \end{array} \right\} \left\{ \begin{array}{l} \dots\text{-TZEA} \\ \text{(zer)} \end{array} \right\}$
- C) $\dots\text{(zer)}\dots \left\{ \begin{array}{l} \text{gogoan izan} \\ \text{aintzat har} \\ \text{kontuan har} \end{array} \right\} \left\{ \begin{array}{l} \text{eskatzen dizu(e) (t) (gu)} \\ \text{eskatuko (ge)nizu(e) ke} \end{array} \right\}$
 $\left\{ \begin{array}{l} \text{-TZEA} \end{array} \right\}$
- $\left\{ \begin{array}{l} \text{oso interesgarri(a)} \\ \text{oso garrantzitsu(a)} \\ \text{behar-beharrezko(a)} \\ \text{premiazko(a)} \end{array} \right\} \left\{ \begin{array}{l} \text{iruditzen BAITzai(t)(gu)} * \\ \text{iruditzen zai(t)(gu) ETA} \end{array} \right\}$
- D) $\dots \dots \dots \left\{ \begin{array}{l} \dots\text{-RA} \\ \dots\text{-RENGANA} \end{array} \right\} \text{jo} \left\{ \begin{array}{l} \text{dezakezu(e)} \\ \text{zenezake(te)} \end{array} \right\}$
 $\left\{ \begin{array}{l} \text{(zertarako)} \\ \dots\text{telefonora dei} \end{array} \right\}$

* "BAIT..." atzetik jartzen den bezala, "...iruditzen zaidaNEZ" aurretik jar daiteke.

➤ Adibideak

Gabonetako kanpainari denda guztiok batera ekitea proposatzen dut, erosleen aurrean itxura ona emateko.

Nire iritiz komenigarria litzateke zu ere etortzea (etor zaitezen).

Egitasmo hau aintzat har dezazuen (hartzea) eskatzen dizuegu, guztiz landua iruditzen zaigu eta.

Dendarien Elkartearen eskaerak kontuan har ditzazula eskatzen dizugu, premiazkoa iruditzen baitzaigu.

Argibide gehiago nahi izanez gero, 564733 telefonora dei dezakezue.

ZERBAIT ESKATZEKOAK

➤ Azalpena

Zerbaiti buruzko argibideak, argibide gehiago edo zehatzagoak eskatzen direnean.

➤ Egitura

- $$\left\{ \begin{array}{l} \dots\text{(E)LA ETA} \\ \dots\text{(E)NEZ} \end{array} \right\} \left\{ \begin{array}{l} \dots\text{(a)ren inguruko} \\ \dots\text{(ari) buruzko} \\ \dots\text{(ari) dagozkio} \end{array} \right\} \left\{ \begin{array}{l} \text{berri(ak)} \\ \text{jarraipide(ak)} \\ \text{egitarau(ak)} \\ \text{programa(k)} \\ \text{argibide(ak)} \\ \text{informazio(ak)} \\ \text{zehatzasun(ak)} \end{array} \right\} \left\{ \begin{array}{l} \text{laburr(ak)} \\ \text{zehatz(ak)} \\ \text{zehatzago(ak)} \\ \text{berri(ak)} \\ \text{gehiago} \end{array} \right\}$$

$$a) \left\{ \begin{array}{l} \text{jaso} \\ \text{eskuratu} \\ \text{lortu} \\ \text{ezagutu} \\ \text{jakin} \\ \text{izan, eduki} \end{array} \right\} \left\{ \begin{array}{l} \text{Nahi nuke/nituzke} \\ \text{Nahi genuke/genituzke} \end{array} \right\} \left\{ \begin{array}{l} \text{lehenbailehen} \\ \text{ahalik eta ...} \end{array} \right\}$$

$$*b) \left\{ \begin{array}{l} \text{lehenbailehen} \\ \text{ahalik eta...} \end{array} \right\} \left\{ \begin{array}{l} \text{bidali} \\ \text{egiaztatu} \\ \text{zehaztu} \end{array} \right\} \left\{ \begin{array}{l} \text{-T(Z)EA} \\ \text{eskertuko} \end{array} \right\} \left\{ \begin{array}{l} \text{nizu(e)ke} \\ \text{genizu(e)ke} \end{array} \right\}$$

*b) aukeran: "eskertuko nizueke" eta antzekoak, esaldi hasieran doaz maiz.

➤ **Adibideak**

Izena eman nuenez, *dendariontzat* antolatuta behar dituzuen *euskara-ikastaro*ei buruzko informazio zehatza izan nahi nuke.

Behean adierazten dizkizudan produktuei buruzko zehaztasunak jaso nahi nituzke ahalik eta azkarren.

Eskertuko genizuke behean adierazten dizkizugun produktuei buruzko zehaztasunak bidaltzea.

X-86 kolorezko telebisten eta KULMA ordenadore eramangarrien zuen katalogo orokorra jaso eta aztertu ondoren, behean adierazten dizkizuedan produktuen aurrekontua lehenbailehen bidaltzea eskatzen dizuet: (...)

Behean adierazten dizudan faktura lehenbailehen egiaztatzea eskertuko nizuke.

ZORIONAK EMATEKOAK


➤ **Azalpena**

Egin behar izan dena ongi, zehaztasunez edota tertzioz egin denean. Ospatzeko moduko beste zerbait gertatzen edo lortzen denean.

➤ **Egitura**

$$A) (\text{Lehenengo eta behin}) \left\{ \begin{array}{l} \text{nire} \\ \text{gure} \end{array} \right\} \text{zorion(ak)} \left\{ \begin{array}{l} \text{beroenak} \\ \text{zintzoenak} \end{array} \right\} \left\{ \begin{array}{l} \text{.....-(E)LAKO} \\ \text{...-(tzea)gatik} \end{array} \right\}$$

$$B) \left\{ \begin{array}{l} \text{.....dela eta} \\ \text{(zer)} \\ \text{.....dagokionez} \\ \text{(zeri)} \end{array} \right\} \left\{ \begin{array}{l} \text{jaso} \\ \text{har} \end{array} \right\} \left\{ \begin{array}{l} \text{itzazu(e)} \\ \text{ezazu(e)} \end{array} \right\} \left\{ \begin{array}{l} \text{gure} \\ \text{nire} \end{array} \right\} \begin{array}{l} \text{ZORIONAK} \\ \text{ZORION(IK)} \\ \text{(eta onginahirik} \\ \text{zintzoena)} \end{array} \left\{ \begin{array}{l} \text{beroena(k)} \\ \text{zintzoena(k)} \end{array} \right\}$$



➤ Adibideak

Lehenengo eta behin gure zorionik beroenak zuekin daramagun urte hauetan guztietan eskaini diguzuen zerbitzu onarengatik.

Jaso ezazu gure zorionik eta onginahirik zintzoena kargu berriaz jabetzen zaren honetan.

Orain arte gure artean egin duzun lanari dagokionean, zuzendaritza honek bere zorionik zintzoenak agertu nahi dizkizu.

Zuen negozioaren hogeita bosgarren urtemuga dela eta, gure onginahirik zintzoena adierazi nahi dizuegu.

Herriko jaiak direla eta, herriko Dendarien Elkartek zorionik beroenak ematen dizkizue.

ESALDI-EREDUAK DIRELA ETA

Eredu hauen hizkuntza nahikoa **maila formalekoa** da. Nori eta zein egoeratan idazten diogun kontuan izan beharko dugu beraz, hizkuntz mota hau ala **lagunartekoagoa** erabili aukeratzeko.

Adibidez: Gure eskerrik beroenak agertu nahi dizkizugu zuen laguntzagatik. (formala)
Esker mila zuen laguntzagatik. (lagunartekoa)

Honen bidez, apirilaren 5ean bidalitako ordenadore berrien eskuliburuak jaso ditugula jakinarazten dizut. (formala)
Jakin ezazu jaso ditudala ordenadore berrien eskuliburuak. (lagunartekoa)

Honekin batera bidaltzen dizut gure IFK (Identifikazio Fiskaleko Zenbakia). (formala)
Hementxe daukazu gure IFK (Identifikazio Fiskaleko Zenbakia). (lagunartekoa)

GUTUNAREN EGITURA EDO ZATIAK



Kale Nagusia 5 eta 6
Posta-kutxa: 107
48300 GERNIKA (Bizkaia)

Tel.: 94 • 625 10 10
Faxa: 94 • 625 10 20

Zure erreferentzia
AL/1402

Gure erreferentzia
SR/LM-505

Gaia:
Telebista-katalogoak

Andoni Bereziartua jauna
Zumardi plaza 23.2.esk.
BELDARRAIN (Nafarroa)

Gernikan, 1998ko apirilaren 12an

Jaun hori:

Hil honen bian bidali zenigun eskutitzari erantzunez, honekin batera bidaltzen dizkizugu telebista-hargailuen katalogoak eta prezio-zerrenda. Hor ikusi ahal izango duzu eredu desberdinei buruzko informazioa: bakoitzaren ezaugarri tekniko, neurri, material, funtzionamendu-arauak, etab.

Prezio-zerrendetan, eredu bakoitzaren balioarekin batera ordainketa-era desberdinak adierazita daude. Telebista-hargailu desberdinen artean PL-500 sailekoak gomendatzen dizkizugu.

Beste edozein argibide nahiko bazenu, jakinarazi mesedez.

Zure zain geratzen naiz,

Izpta.: Mikel Otegi
Salmenta-burua


OHARRA: Bidaltzen dizkizugun prezioei BEZ gehitu behar zaie (+ % 16).

Goihurukoa

Gorputza

Oina

GUTUNAREN EGITURA EDO ZATIAK



Goiburukoa

➤ Idazpurua

Establezimendu bidaltzailearen **izena** eta **helbidea** jartzen dira bertan.

📧 Ikus horiei buruzko argibideak 9–11. eta 35–36. orrialdeetan.

➤ Helbidea

Establezimendu hartzaile edo jasotzailearen **helbidea** jartzen da eremu horretan.

📧 Ikus 35–36. orr.

➤ Gaia

Honako ezaugarriak eduki behar ditu gaiak: esaldi labur batez (edo bi bat hitzez) osatuta egon behar du eta komunikazioaren mamia azaldu behar duela kontuan hartuta, ez du alferrikako hitzik azaldu behar (...i buruzko gutuna agertzea adibidez, ez da beharrezkoa).

Adibidez: Telebista-katalogoak (eta EZ, Telebista-hargailuen katalogoak eta prezio-zerrenda bidaltzea; hori guztia gutunean esango dugunez, ez da beharrezkoa gaian ere aipatzea).

➤ Data

📧 Ikus 30–33. orr.

➤ Hasierako agurrak.

Gutunetan hasierako agurra idazteko era asko daude. Beti ere, kontuan hartu behar da **nori** bidaltzen zaion eskutitza edo gutuna eta zer-nolako **tratamendua** eman nahi zaion. Hona hemen zerrenda:

Adiskide:

Adiskidea:

Adiskide hori:

Adiskideak:

Adiskideok:

Adiskide horiek:

Jauna:

Jaun hori:

Jaunak:

Jaunok:

Jaun horiek:

Andrea:

Andre hori:

Andreak:

Andreok:

Andre horiek:

Agur:

Agur t'ardi:

Agur, adiskide:

Agur, adiskidea:

Agur, adiskide hori:

Agur, adiskideak:

Agur, adiskide horiek:

Agur, Jauna:

Agur, Jaun hori:

Agur, Jaunak:

Agur, Jaun horiek:

Agur, andrea:

Agur, andre hori:

Agur, andreak:

Agur, andre horiek:

Adiskide: Agur!/Agur t'ardi!

Adiskidea: Agur!/Agur t'ardi!

Adiskide hori: Agur!/Agur t'ardi!

...

Oharra: Jaun edo andre hitzei "agurgarri" eta antzekoak erantsi izan zaie; baina ez da beharrezkoa, "Jauna" edo "Andre" hitzek badute-eta kortesiazko kutsua.

Jauna ≠ jaun-andreak

Jaun-andreak ≠ Jauna/andrea

Gorputza

➤ Tarteko esapide edo esaldiak.

Merkataritza-gutunetan maiz errepikatu ohi diren esaldiak daude. Adibidez:

.....-i erantzunez,jakinarazten dizuet.

Berriro ere zuregana gatozkizu-en berri emateko.

Horregatik bada, arren eskatuko nizuke....

Zuri tartetxo bat kentzera natorkizu berriro,-en berri emateko asmoz.

Jakinaren gainean egon zaitezen eta behar diren ondorioetarako, honekin batera bidaltzen dizut Xek bidalitako idazkiaren fotokopia, ...-i dagokiona.

.....-en bitartez jakin dugunez,.....

Zuek ezagutzeko aukerarik ez izan arren,

Zoritxarrez,-t(z)era beharturik gaude.

Gure nahia ez izan arren,.....

Atsekabez,-t(z)era beharturik gabe.

.....-en berri ematera beharturik gaude.

Arazoak ondorio onak ekarriko dituelakoan gaude.

Gure eskabidea izango dela espero dugu.

.....duzuela espero dugu.

..... dela eta, barkamena eskatzen dizuegu.

Gure hutsegiteaz jabeturik,.....

Gertatutakoak barkatuko dituzuelakoan,.....

☞ Horrelako esaldiei buruzko informazio zehatzagoa liburu honen "Komunikazioetarako esaldiak" atalean (43-56. orr.) topatuko duzu.

Oina

➤ Bukaerako agurrak.

Helburuaren arabera, desberdin agurtzen ditugu gutunak.

- Eskerrak ematekoak:

Aldez aurretik eskerrak emanez,

Mila esker/Eskerrik asko zure/zuen laguntzagatik,

- **Zerbait eskatu denean erabiltzekoak:**

Zure/zuen berri laster izango dudalakoan/dugulakoan
 Zure/zuen zain geratzen naiz/gara,
 Zure/zuen erantzunaren zain geratzen naiz/gara,
 Gure/nire eskaria kontuan hartuko duzu(e)lakoan,
 Gure/nire eskaria beteko duzu(e)lakoan,
 Zure/zuen erantzuna baiezkoa izango delakoan,

- **Gaztelaniazko "sin más" en parekoak:**

Oraingoz besterik ez,
 Honenbestez besterik ez,
 Besterik gabe,
 Beste barik,

- **Gaztelaniazko "hasta la vista" eta antzekoak adierazteko:**

Ongi izan eta hurrengorarte/hurrengo arte,
 Ongi izan eta laster arte,
 Hurrengo arte/hurrengorarte/hurrengo arte,
 Laster arte,
 Ikusi arte,
 Agur ezen ez adiorik,
 Agur, ez adiorik,
 Ongi izan,
 Agur honenbestez,

- **Gaztelaniazko "le saluda", "atentamente", "cordialmente" eta antzekoak adierazteko:**

Agur
 Agur t'erdi
 Agurtzen zaitut/zaituztet/zaitugu/zaituztegu,
 Adeitasunez,
 Adeitasun osoz, agur/agur t'erdi
 Har ezazu/ezazue nire/gure agurrik beroena,
 Har ezazu/ezazue agur bero bat,

... MERKATARITZA-GUTUNAK ...

INFORMAZIOA ESKATZEKOA



Tel.: 94 • 625 10 10
Faxa: 94 • 625 10 20

Zure erreferentzia
AR/MI-311

Gure erreferentzia
AI/GZ-650

Gaia:
Informazioa eskatzea

Kale Nagusia 5 eta 6
Posta-kutxa: 107
48300 **GERNIKA (Bizkaia)**

MIKROFOR S.A.

(Agustin Rodriguez jaunarentzat)

Altzibar ibiltokia, 4

31200 Lizarra (Nafarroa)

Gernikan, 1997ko otsailaren 3an


Jaun hori,

Gutun honen bidez, urtarrilaren 25eko zuen eskutitza jaso dudala adierazten dizut.

Harekin batera bidalitako katalogoak aztertu ditut eta behean adierazten dizkizudan produktuen informazio zehatzagoa lehenbailehen bidaltzea eskertuko nizuke. Batez ere, informazio teknikoa interesatzen zaigu.

- Kolorezko X-86 telebista-saila.
- KULMA ordenadore-saila.

Zure erantzunaren zain,


Izpta.: Andoni Iriarte
Erosketa-burua

INFORMAZIOA BILDALTZEKOA

MIKROFOR S.A.
Elektronika-informatika

Tel.: 948 • 55 48 10
Faxa: 948 • 44 50 12

Zure erreferentzia
AI/GZ-650

Gure erreferentzia
AR/MI-335

Gaia:
Informazioa bidaltzea

Altzibar ibiltokia, 4
Posta-kutxa: 42
31200 **LIZARRA (Nafarroa)**

Biona koop.
Kale Nagusia 5 eta 6
Posta-kutxa, 107
48300 GERNIKA (Bizkaia)


Lizarran, 1997ko otsailaren 12an

Jaun hori,

1997ko otsailaren 3ko zure gutunean eskatutakoaren arabera, honekin batera bidaltzen dizkizut kolorezko X-86 telebista-saila eta KULMA ordenadore eramangarriari buruzko informazio tekniko zehatza dakarten katalogoak.

Dena dela, guk zerbait azaltzea nahi bazenu, datorren hilaren amaieran gure ordezkari bat inguru hartara joango da eta, nahi izango bazenu, berarekin egoteko aukera izango duzu. Horretarako, deitu guri hil honen amaiera baino lehen.

Zure nahia bete dugulakoan, ongi izan eta hurrengorarte.


Izota.: Agustín Rodríguez

Salmenta-burua

AURREKONTUA ESKATZEKOA



Tel: 94 • 625 10 10
Faxa: 94 • 625 10 20

Zure erreferentzia
AR/MI-334
Gure erreferentzia
AI/GZ-662

Gaia:
Aurrekontua eskatzea

Kale Nagusia 5 eta 6
Posta-kutxa: 107
48300 **GERNIKA (Bizkaia)**

MIKROFOR S.A.
(Agustin Rodriguez jaunarentzat)
Altzibar ibiltokia, 4
31200 Lizarra (Nafarroa)

Gernikan, 1997ko otsailaren 25ean

Jaun hori,

Zuen X-86 kolorezko telebisten eta KULMA ordenadore eramangarrien katalogo orokorrak jaso eta aztertu ondoren, honako produktu hauen aurrekontua bidaltzea eskertuko nizuke:

- 2 26", KOLOREZKO TELEBISTA, K2 1123
- 4 26", KOLOREZKO TELEBISTA, K2 1233
- 6 20", KOLOREZKO TELEBISTA, YG 0048
- 9 ORDENADORE ERAMANGARRI, 100 500/16

Aldez aurretik eskerrak emanez,

Izpta.: Andoni Iriarte
Erosketa-burua

ESKAERA EGITEKOA



Tel.: 94 • 625 10 10
Faxa: 94 • 625 10 20

Zure erreferentzia
AR/MI-356

Gure erreferentzia
AI/GZ-683

Gaia:
Telebista-eskaera

Kale Nagusia 5 eta 6
Posta-kutxa: 107
48300 **GERNIKA (Bizkaia)**

MIKROFOR S.A.
(Agustin Rodriguez jaunarentzat)
Altzibar ibiltokia, 4
31200 Lizarra (Nafarroa)

Gernikan, 1997ko martxoaren 21ean

Jaun horiek,

1997ko martxoaren 14an bidali zeniguten eskaintza aztertu ondoren, zuen X-86 saileko telebistak eskatzea erabaki dugu.

Eskatzen dizkizuegun telebista-eredu eta kopuruak honekin batera bidaltzen dizuegun ESKAERA-ORRIAN zehazturik daude. Baita entregatzeko epea eta ordainketa-era ere.

Eskaera-onarpena eta materiala laster bidaliko dizkiguzuelakoan, agur t'ardi.


Izpta.: Andoni Iriarte
Erosketa-burua

MATERIALA BIDALTZEKOA

MIKROFOR S.A.
Elektronika-informatika

Tel.: 948 • 55 48 10
Faxa: 948 • 44 50 12

Zure erreferentzia
AI/GZ-718

Gure erreferentzia
JJ/LE-405

Gaia:
Materiala bidaltzea

Altzibar ibiltokia, 4
Posta-kutxa, 42
31200 **LIZARRA (Nafarroa)**

Biona koop.
Kale Nagusia 5 eta 6
Posta-kutxa, 107
48300 GERNIKA (Bizkaia)


Lizarran, 1997ko apirilaren 3an

Jaun hori,

Honen bidez adierazten dizugu, 1997ko martxoaren 2lean eskatu zeniguten materiala gaur bertan atera dela gure fabrikatik INURRI GARRAIOAKen bidez.

Bidalketaren produktu-zerrenda materialarekin batera iritsiko zaizuen emate-agirian zehatz-mehatz adierazita dago.

Zuen nahia bete dugulakoan, agur t'erdi.


Izpia: Joseba Jauregi
Bidalketa-burua

JASO EZ DEN MATERIALA ERREKLAMATZEKOA



Tel.: 94 • 625 10 10
Faxa: 94 • 625 10 20

Zure erreferentzia
JJ/LE-413

Gure erreferentzia
JB/MR-183

Gaia:
Materiala erreklamatea

Kale Nagusia 5 eta 6
Posta-kutxa: 107
48300 **GERNIKA (Bizkaia)**

MIKROFOR S.A.
(Joseba Jauregi jaunarentzat)
Altzibar ibiltokia, 4
31200 Lizarra (Nafarroa)

Gernikan, 1997ko apirilaren 7an

Jaun hori,

Jaso berria dugu 1997ko apirilaren 3an bidalitako materiala; eta guztia aztertu ondoren, ohar batzuk egin behar dizkizuegu.

Bidali diguzuen materialaren zati handiena onartu dugu, baina erreklamazio bat egin behar dugu.

Jasotako materiala guk 1997ko martxoaren 21ean bidali genizuen eskaerarekin guztiz bat dator. Baina geroztik, 1997ko marxoaren 25ean beste eskaera bat egin genizuen lehenengoari aldaketak ezarri. Zuek 1997ko martxoaren 3ko gutunean onartu zenizki-guten aldaketa horiek, baina ez dituzue kontutan hartu.

Beraz, jaso ditugun bi 22" KOLOREZKO TELEBISTA K2 2211 itzuli egingo dizkizuegu eta horien ordezkioak diren beste bi telebistak ahalik eta azkarren hartu nahi genituzke.

Aldez aurretik eskerrak emanez,


Izpta.: Jazinto Berasategi
Biltegi-burua

MATERIALA HARTU IZANA ADIERAZTEKOA



Tel.: 94 • 625 10 10
Faxa: 94 • 625 10 20

Zure erreferentzia
JJ/LE-426

Gure erreferentzia
JB/MR-196

Gaia:
Hartuaren adierazpena

Kale Nagusia 5 eta 6
Posta-kutxa: 107
48300 **GERNIKA (Bizkaia)**

MIKROFOR S.A.
(Joseba Jauregi jaunarentzat)
Altzibar ibiltokia, 4
31200 Lizarra (Nafarroa)

Gernikan, 1997ko apirilaren 29an

Jaun hori,

Zuek apirilaren 18an bidalitako materiala jaso eta aztertu ondoren, honako hau adierazten dizuegu:

Apirilaren 3ko eskaerari dagokion material guztia jaso dugula eta material horrekin ados gaudela.

Besterik gabe,

Izpta.: Jazinto Berasategi
Biltegi-burua

FAKTURA BIDALTZEKOA

MIKROFOR S.A.
Elektronika-informatika

Tel: 948 • 55 48 10
Faxa: 948 • 44 50 12

Zure erreferentzia
JB/MR-196

Gure erreferentzia
MM/EI-253

Gaia:
Faktura bidaltzea

Altzibar ibiltokia, 4
Posta-kutxa: 42
31200 **LIZARRA (Nafarroa)**

Biona koop.
(Kontabilitate-saila)
Kale Nagusia 5 eta 6
Posta-kutxa, 107
48300 GERNIKA (Bizkaia)

Lizarran, 1997ko maiatzaren 12an

Bezero estimagarriak,

1997ko apirilaren 29ko zuen hartu-adierazpena jaso ondoren, honekin batera bidaltzen dizuegu 1997ko martxoaren 25ean egin zeniguten eskaerari dagokion faktura. Fakturaren gutzitza, % 16ko BEZ barne, 3.398.070 pta.koa da.

Faktura Nafarroako Aurrezki-Kutxan dugun 001/86931/7 kontu korrontera transferentzia eginez ordain dezakezue.

Erreklamaziorik ez badago, faktura ordaintzeko epea irailaren leian amaituko da.

Besterik gabe,


Izpta. Miren Martinez
Kontabilitate-burua

FAKTURA ITZULTZEKOA



Tel.: 94 • 625 10 10
Faxa: 94 • 625 10 20

Zure erreferentzia
MM/EI-523

Gure erreferentzia
TI/FH-396

Gaia:
Faktura itzultzea

Kale Nagusia 5 eta 6
Posta-kutxa:107
48300 **GERNIKA (Bizkaia)**

MIKROFOR S.A.
(Miren Martinez andrearentzat)
Altzibar ibiltokia, 4
31200 Lizarra (Nafarroa)

Gernikan, 1997ko maiatzaren 24an

Andre hori,

Jaso berria dugu 1997ko maiatzaren 12an bidali zeniguten faktura. Berau aztertu ondoren, ondorengoa eman nahi dizugu aditzera:

Faktura hori ez dela martxoaren 25eko gure eskaerari dagokiona. Honekin batera bidaltzen dizuegu, beraz, jaso dugun faktura eta berria bidaltzea espero dugu.

Zuen erantzunaren zain geratzen gara.

Izpta.: Tere Intxaurreaga
Kontabilitate-burua

ORDAINKETA ATZERATU IZANAGATIK ERREKLAMAZIOA EGITEKOA

MIKROFOR S.A.
Elektronika-informatika

Tel.: 948 • 55 48 10
Faxa: 948 • 44 50 12

Zure erreferentzia
TI/FH-412

Gure erreferentzia
MM/EI-573

Gaia:
Ordainketa-atzerapena

Altzibar ibiltokia, 4
Posta-kutxa: 42
31200 **LIZARRA (Nafarroa)**

「 Biona koop.
(Tere Intxaurreaga andrearentzat)
Kale Nagusia 5 eta 6
Posta-kutxa, 107
48300 GERNIKA (Bizkaia) 」

Lizarran, 1997ko irailaren 17an

Agur t'erdi,

Ekainaren 25eko zuen gutunaz gero, ez dugu zuen berririk jaso. Saiatu naiz telefonoz zurekin hitz egiten, baina ezinezkoa gertatu zait.

Dena den, ondorengoa gogorarazi nahi nizun: ekainaren 3ko faktura ordaintzeko epea irailaren 15ean amaitu zela.

Zuen erreklamaziorik jaso ez dugunez, atzerapenaren arrazoia jakin nahi genuke.

Zure berri laster izango dugulakoan,

Izpta.: Miren Martinez
Kontabilitate-burua

BANKUAK LETRA ITZULI DUELA JAKINARAZTEKOA

Miker S.L.

Kirol-gaiak

Tel: 943 • 773261
Faxa: 943 • 221140

Zure erreferentzia
XXXX

Gure erreferentzia
XXXX

Gaia:
Letra itzulia

Martutene poligonoa, 17. pabilioa
20014 **DONOSTIA**
(Gipuzkoa)

SATUR Kirol-denda
San Martin kalea, 19
20570 BERGARA (Gipuzkoa)

Donostian, 1998ko azaroaren 22an

Bezero hori,

Honen bidez honako efektu hau ordaindu gabe itzuli digutela jakinarazten dizut:

NORI IGORRIA:

NORK IGORRIA:

FAKTURA-ZK.:

ZENBAT PTA.:


PTA.k guztira, itzulpen-gastuak barne:

DATA:

MUGAEGUNA:

Honekin batera bidaltzen dizut ordaindu gabeko efektua, dagozkion gestioak egin eta ahalik eta azkarren esandako zenbatekoa bidal diezadazun.

Zure zain geratzen naiz,


Izpta.: Lorea Alberdi
Kontabilitate-arduraduna

LETRA ITZULI IZANAGATIK BARKAMENA ESKATZEKOA

SATUR

Kirol-denda

San Martin kalea, 19
20570 **BERGARA**
(Gipuzkoa)

Tel.: 943 • 789865
Faxa: 943 • 784523

Zure erreferentzia
XXXX

Gure erreferentzia
XXXX

Gaia:
Letra itzulia

MIKER S.L.
Martutene poligonoa, 17. pab.
20014 DONOSTIA (Gipuzkoa)

Bergaran, 1998ko abenduaren leian

Hornitzaile hori,

Zure 1998ko azaroaren 22ko gutuna erantzutera natorkizu.
Gure banketxearen erruagatik itzuli dizute efektua ordaindu gabe.

Sentitzen dut hutsegite horrek sortu dizkizuen kalteak eta arazoa lehenbailehen konpontzen saiatuko gara.

Horrenbestez,


Izpta.: Maite Saizar

... ESKAERA-AGIRIA ...

Eroslearen datuak ¹⁰¹ ikus 9–11. orr. establezimenduaren izena jartzeko oharrak

¹⁰¹ ikus 35–36. orr.

ZK. = zenbakia

"data" edo "noiz" ¹⁰¹ ikus
30–33. orr.

<div style="border: 1px solid black; width: 200px; height: 40px; margin-bottom: 10px;"></div> <p>Data _____ Eskaera-zk.: _____</p> <p>_____ Jauna/Andrea</p> <p>Helbidea _____ Herria _____</p> <p>Merkantzia non kokatu _____</p> <p>Garraiabideak _____ Emateko epea _____</p> <p>Ordainketa-era _____ Igorpena helbideratzen den tokia _____</p>		
KANTITATEA	AZALPENA	PREZIOA

¹⁰¹ ikus ERANSKINEAN (101. orr.)
 E.H.ko herrien zerrenda

... EMATE-AGIRIA edo ALBARANA ...

saltzailearen datuak (ikus 9-11. orr. estabiezimenduaren izena jartzeko oharrak)

"data" edo "noiz" (ikus 30-33. orr.)

ZK. = zenbakia

(ikus 35-36. orr.)

EMATE-AGIRI ZK.: _____

Data _____

IFZ = Identifikazio Fiskaleko Zenbakia

(ikus ERANSKINEAN (101. or.) E.H.ko herrien zerrenda)

Hau gehiago zehaztu liteke, gai-motaren arabera: pisua, kopurua, ...

Bezeroa _____ IFZ _____
 Helbidea _____ Herria _____

Eskatera:	Erreferentzia:	Garraibideak:	Paketeak:
-----------	----------------	---------------	-----------

KANTITATEA	AZALPENA		

Nahi izanez gero, "prezioa" jartzen da

. . . FAKTURA . . .

Eremu horietan establezimenduen izenak edota helbideak jartzen dira.
 ikus 9-11. eta 35-36. orr.

ikus 30-33. orr.

BEZEROA						
Dokumentua	Zerbakia	Data	Oria			
Erreferentzia	Azalpena	Kopurua	Prezioa	Dtu.	Zenbatekoa	
Guztira						
Dtu. komertziala	Finantza-dtu.	Zerga-oinarria	BEZ	BE	Garraioa	
Fakturaren zenbatekoa						
Ordaintzeko era						

Dtu. = deskontua

BEZ = balio erantsiaren gaineko zerga

BE = Baliokidetasun-errekargua

... ORDAINAGIRIA ...

ikus 30-33. orr.

ikus ERANSKINEAN (101. or.)
E.H.KO herrien zerrenda

ORDAINAGIRI ZK.	BIDALTZE-HERRIA	ZENBATEKOA
BIDALTZE-DATA		MUGAEGUNA
HELBERATZE-KONTUA: BANKUA:		-I DAGOKIONA -EN AGINDURA
ORDAINZAILEAREN IZEN ETA HELBIDEA		

Amisipma

ikus 9-11. eta 35-36. orr.

Azalpena

ikus 30-33. orr.

_____ ZK.	ORDAINAGIRIA _____ ZK.
	_____ -(e)ko _____ -(r)en _____ -(e)ean
Hartzailea: _____	Hartzailea: _____
Kopurua: _____	Kopurua: _____
Arrazoa: _____	Arrazoa: _____
_____ -(e)ko _____ -(r)en _____ -(e)an	
_____ Pta.	_____ Pezeta Sin.: _____

Pta. = pezeta


Sin. = sinadura

TXEKEA

Hatzailearen izen-deiturak azaltzen dira eta ez zaio **-RI** Dirua hartuko duenaren izen-deiturak baitarama (inolahi dela erantsi behar, txkeak berak inprimatuta baitarama amatutakoek ere, bokalez amaitutako izenek **-RI** eta kontsonantez amaitutakoek ere, bokalez amaitutako izan gabe, besteakoa ere izan daiteke **-i** behar dute). **Izenduna** izatea gomendatzen da. **eramailea** jarriz, baina izenduna izatea gomendatzen da.

Txeke zeharkatu
Txeke **zeharkatu** egin daiteke. Horretarako, diagonalezko bi lerro paralelo egiten dira eta "y Cia" idazten da. Era horretara, txekea kontuan sartuz bakarrik kobra daiteke.

Kopurua, zifraz emana
Kopurua zifraz idazten da eta azzetik egiten da. **#** zeinuak jarriz babestu



Kopurua, letraz emana
Goian eskuinaldean zifraz jarritako kopuru bera **letra larritz** idatzi behar da. Bete gabeko tartea ballogabetu egin behar da. **€** ikus 27-29. **PT.**

Leku-izena eta data
Leku-izena **-N** amaieraz zein gabe eta, ondoren, data (letraz) idatzi behar dira. **€** ikus 30-33. **PT.**

Sinadura



... HELBIDE-TXARTELA ...



Elhuyar
K U L T U R A L E L K A R T E A

- Zientzia eta teknika
- Komunikazio-zerbitzuak
- Hezkuntz materialak
- Multimedia
- Hizkuntz zerbitzuak

Asteasuain poligonoa, 14. pabliola. Txikiardi
Tel.: 945 • 36 30 40 / 1 - Faxa: 945 • 36 31 44
E-mail: elhuyar01@sarenet.es
20170 • USURBIL



Nerine
liburudenda

Bizente Elizegi, 7. Tel. 525088-491557 LESAKA

... ZOZKETA-TXARTELA ...

Establezimenduaren izena
 ikus 9-11. orr.

199__ (e)ko GABONETAKO LOTERIA	<h2 style="text-align: center;">GABONETAKO LOTERIA</h2>	_____
_____ Zk. _____ Pta.	<p>Agiri honen eramaileak pta.ko kopurua jokatzen du zenbakian 1998ko abenduaren 22an zozketatuko den Gabonetako Loteriarako.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Salneurria: _____ pta. • Laguntza: _____ pta. <p style="text-align: center;">Gordailuzaina</p> <p>Saria jasotzeko epea: ____-(e)ko ____-aren ____ a. Helbidea: _____</p>	

Zenbakia

Pta. = pezeta

Honakoa ere azal liteke, ordaindutako zati bat ez bada jokatzeko.

ADITZA

ADITZ LAGUNTZAILEA

		NOR	NOR-NORI		NOR-NORK				NOR-NORI-NORK											
INDIKATIBOA	ORAINA	naiz	NA	tzai	T			NOR	NORK	NOR	NORI	NORK								
		haiz	HA	tzai	K/N			NA	u	T		T								
		da		zai	O			HA	u	K/N		K/N								
		gara	GA	tzai	zki	GU			D	u	-		O							
		zara	ZA	tzai	zki	ZU			GA	it	u	GU	D i (zki)	GU	GU					
		zarete	ZA	tzai	zki	ZUE	te		ZA	it	u	ZUE		ZU	ZU					
	dira		zai	zki	E			ZA	it	u	zte	ZUE		ZUE	ZUE					
								D	it	u	TE		E		TE					
								NOR 3. pertsona hura		NOR 1 edo 2. pertsona haiek										
	IRAGANA	nintzen	NIN	tzai	T	N	nuen	nituen	NIND	u	T	N	N	T	N					
		hintzen	HIN	tzai	K/N	N	huen	hituen	HIND	u	K/N	N	H	K/N	N					
		zen	ZI	tzai	O	N	zuen	zituen	()		-	eN	Z	O	N					
ginen		GIN	tzai	zki	GU	genuen	genituen	GINT	u	GU	N	GEN	i (zki)	GU	N					
zinen		ZIN	tzai	zki	ZU	zenuen	zenituen	ZINT	u	ZU	N	ZEN	ZU	N						
zineten		ZIN	tzai	zki	ZUE	te	zenuten	zenituzten	ZINT	u	zte	ZUE	N	ZEN	ZUE	te	N			
ziren	ZI	tzai	zki	E	N	zuten	zituzten	()		TE	N	Z	E	te	N					
BALDINTZAZKOAK	BALDINTZA	banintz	ba	NIN	tzai	T	banu	banitu	ba	NIND	u	T	ba	N	T					
		bahintz	ba	HIN	tzai	K/N	bahu	bahitu	ba	HIND	u	K/N	ba	H	K/N					
		balitz	ba	LI	tzai	O	balu	balitu	()		-		ba	L	O					
		bagina	ba	GIN	tzai	zki	GU	bagenu	bagenitu	ba	GINT	u	GU	ba	GEN	i (zki)	GU			
		bazina	ba	ZIN	tzai	zki	ZU	bazenu	bazenitu	ba	ZINT	u	ZU	ba	ZEN	ZU				
		bazinete	ba	ZIN	tzai	zki	ZUE	te	bazenute	bazenituzte	ba	ZINT	u	zte	ZUE	ZU	ZUE	te		
	balira	ba	LI	tzai	zki	E	balute	balituzte	()		TE		ba	L	E	te				
	BALDINTZAZKOAK	ORAINA	nintzateke	NIN	tzai	T	ke	nuke	nituzke	NIND	u	ke	T	N	T	ke				
			hintzateke	HIN	tzai	K/N	ke	huke	hituzke	HIND	u	ke	K/N	H	K/N	ke				
			litzateke	LI	tzai	O	ke	luke	lituzke	()		-		L	O	ke				
			ginateke	GIN	tzai	zki	GU	genuke	genituzke	ZIND	uz	ke	GU	GEN	i (zki)	GU	ke			
			zinateke	ZIN	tzai	zki	ZUE	ke	zenuke	zenituzke	ZINT	uz	ke	ZU	ZEN	ZU	ke			
zinatekete			ZIN	tzai	zki	ZUE	ke	zenukete	zenituzkete	ZINT	uz	ke	te	ZUE	ZEN	ZUE	ke	te		
lirateke	LI	tzai	zki	E	ke	lukete	lituzkete	()		TE		L	E	ke	te					
BALDINTZAZKOAK	IRAGANA	nintzatekeen	NIN	tzai	T	ke	eN	nukeen	nituzkeen	NIND	u	ke	T	N	N	T	ke	eN		
		hintzatekeen	HIN	tzai	K/N	ke	eN	hukeen	hituzkeen	HIND	u	ke	K/N	N	H	K/N	ke	eN		
		zatekeen	ZI	tzai	O	ke	eN	zukeen	zituzkeen	()		-	eN	Z	O	ke	eN			
		ginatekeen	GIN	tzai	zki	GU	ke	eN	genukeen	genituzkeen	GINT	uz	ke	GU	N	GEN	i (zki)	GU	ke	eN
		zinatekeen	ZIN	tzai	zki	ZU	ke	eN	zenukeen	zenituzkeen	ZINT	uz	ke	ZU	N	ZEN	ZU	ke	eN	
		zinateketen	ZIN	tzai	zki	ZUE	ke	te	N	zenuketzen	ZINT	uz	ke	te	ZUE	N	ZEN	ZUE	ke	te
zirakeen	ZI	tzai	zki	E	ke	eN	zuketen	zituzketen	()		TE	N	Z	E	ke	te	N			


		NOR	NOR-NORI	NOR-NORK		NOR-NORI-NORK			
AHALERA	ORAINA	naiteke haiteke daiteke gaitezke zaitezke zaitezke zaitezke daitezke	NOR NA ki T ke HA ki K/N ke DA ki O ke GA ki zki GU ke ZA ki zki ZU ke ZA ki zki ZUE ke te DA ki zki E ke	NORI T ke K/N ke O ke GU ke ZU ke ZUE ke te E ke		NOR NA zake T HA zake K/N De zake — GA it zake GU ZA it zake ZU ZA it zake te ZUE D it zake TE	NORK T ke T K/N ke K/N — GU ke GU ZU ke ZU ZUE ke ZUE iE ke TE		
